



hariak

2025eko azaroa

Recreando la educación emancipadora



sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Honako hauen laguntzarekin egin da argitalpen hau: Garapenerako Nazioarteko lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID), 2025ko proiektu honen esparruan: *Unibertsitate Hedakuntza Kritikoa, GJHei laguntzeko eta eraldaketa ekosozialerako garrantzitsua den ezagutza-ekintza eraikitzeko*. Eta eLankidetzeta – Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia, 2023ko proiektu honen esparruan: *Euskal-kolonbiar artikulazioa, hezkuntza emantzipatzailea eta ikerketa kritiko kolaboratiboa esperimendatzeko, ikasteko eta Komunikatzeko*. Testuen edukiaren erantzukizuna Hegoarena baino ez da, eta ez dute nahitaez AECIDen eta eLankidetzaren iritzia islatzen.

Argitaratze kontseilua:

Inmaculada Cabello Ruiz
Juanjo Celorio Díaz
Sandra Dema Moreno
Alejandra Boni Aristizábal
Joseba Sainz de Murieta Mangado
M^a Luz De la Cal Barreda
Jone Martínez Palacios
Jaume Martínez Bonafé
M^a Jesús Martínez Usarralde
Gema Celorio Díaz
Amaia del Río Martínez

Lege-gordailua:: BI-1805-2016

Hariak, 17-zk, Sistematizazioa ikasketa prozesu gisa, 2025eko azaroa

ISSN: 3045-7378 (Inprimatua)

ISSN: 3045-8609 (Linean, euskera)

ISSN: 3045-7386 (Linean, castellano)

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Azaleko argazkia: Paula Terán Prado
Eskertzen dizuegu ale honetarako emandako laguntza.

Aldizkari hau paper ekologikoan inprimatu da, eta horren lehengaia baso-kudeaketa iraunkorraren bitartez eskuratu da.



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>

Finantzatzaileak:



Argitaratzailea:



EHU

Zubiria Etxea Eraikina
Agirre Lehendakariaren etorbidea, 81 • 48015 Bilbo
Tel.: 94 601 70 91

EHU

Arabako Campuseko Liburutegia
Nieves Cano kalea, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 01 42 87

EHU

Carlos Santamaria Zentroa
Elhuyar Plaza, 2 • 20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 01 74 64

www.hegoa.ehu.eus



aurkibidea



2

editoriala

Bideaz ikastea: sistematizazioa praktika askatzaile gisa
Juanjo Celorio Díaz

4

sakonean

Sistematizazioa, ikerketa-modalitate eraldatzaile gisa
Alfonso Torres Carrillo

Komunitateen borrokak aberasten dituen ikerketa. Unibertsitate eremu
kritikoetatik artikulatutako sistematizazio baten ikaspenak

Amaia del Río, Gema Celorio, Juanjo Celorio, Julio R. Jaime, Robinzon Piñeros, Andrea Rey eta Axel Rojas

18

solasean

Sistematizazioa ikaspen gisa. Jaki Herriaren Unibertsitatearen hezkuntza-eredua
diseinatzeko prozesuaren sistematizazioa
Rosa Margarita Sánchez Pacheco

26

ekin lanari

Auzoko istorio bat
Jesús Fernando Campos Gómez eta Ana Belén Real Murillo

36

begirada konprometituak

zinema/dokumentalak Nuestras aguas. Conflictos y propuestas desde el Norte
de Extremadura • Insumisas. Mujeres en lucha en el Sáhara Occidental

argitalpenak A sistematizar se aprende sistematizando. Escuela de formación
en sistematización • Dossier “Diálogo de saberes”

erakundeak Sindicat de Llogateres Kataluniako maizterren sindikatua • Sevilla Negra

ezinbesteko agenda Hezkuntza Konprometituari eta Kritikoari buruzkoa Nazioarteko
Biltzarra • Unibertsitate mikrokredentziala Pedagogia Antifaxistan

40

matxino artean

Vagas y maleantas: una historia (incompleta) de activismos andaluces
Ikerketa taldea “Otras: Perspectivas feministas en investigación social”

sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Bideaz ikastea: sistematizazioa praktika askatzaile gisa

Hariak aldizkariaren 17. zenbaki honen izenburua “Sistematizazioa ikasketa prozesu gisa” da. Gure ustez, garrantzitsua da ulertzea ikaspenen sistematizazioa ez dela ekintzaren ostean egiten den laburpen ariketa bat, ezta prozesuen memoria ordenatzeko ariketa neutral bat ere. Gure ikuspegiaren arabera, sistematizazioa pentsamendu eta konpromiso modu bat da; ezagutza sortzeko modu bat, praktikaren, esperientziaren, erresistentzia ekintzen eta gizarte sormenaren, eta bizitzaren erreprodukzioaren egunerokotasunetik sortutako memoriaren bitartez. Beraz, jakintzak eta teoria eskuekin eta bizitzarekin sortzeko estrategia politiko gisa kokatzen dugu. Hori dela eta, “sistematizatu” esaten dugun bakoitzean, Akademia hegemonikoaren nagusitasunari aurre egiten dion praktika politikoaz ari gara. Izan ere, Akademiak bereizi egiten ditu subjektua eta objektua, jarduketara eta hausnarketa, eta jakintza eta hura sortzen duena.

Monografiko hau ekintzaren eta pentsamenduaren arteko muga emankor horretan kokatzen da. Hain zuzen, prozesu kolektiboetatik, lurraldeko pedagogietatik, gizarte mugimenduetatik eta bere burua aztertzen duten esperientzietatik sortzen diren ikaspenak aintzat hartu, ezagutzera eman eta indartu nahi ditu. Alfonso Torresek esan bezala, sistematizazioa ez da bizi izandakoa berritzea; aitzitik, interpretaziozko ekintza kritikoa eta eraldatzailea da, eta bizi garen errealitatearen tentsioak, kontraesanak eta aukerak irakurtzeko gai da. Zentzu horretan, sistematizatzea jakintza politikoa sortzea da: nagusi diren kontakizunak deuseztatzea, isilarazitako ahotsak leheneratzea eta esperientzia bere protagonisten ikuspegitik berrinterpretatzea. Eta hori guztia gaur egungo eta etorkizuneko borroka ahalduntzeko helburuz.

Ikuspegi horrekin bat, Rosa Margarita Sánchez Pachekok gogorarazten digu sistematizazioa entzutea eta zaintzea ere dela, samurtasun politikoko ekintza bat komunitateei hitza kentzen dien indarkeria epistemikoaren aurrean. Sistematizazioa behetik egiten denean, borrokatzen diren mugimenduekin batera, gorputzetik eta lurraldetik, orduan duintasun eta errebeldia ekintza bat da: jakintza herritarraren, baserritarraren, indigenaren, feministaren edo komunitarioaren balioa aintzat hartzea, mundua ulertzeko jakintza legítimo gisa. Epistemologia estraktibisten aurrean, ardurakidetzaren eta memoria biziaren etika bat proposatzen du; hau da, gizarte justizian eta justizia epistemikoan aurrera egitea.

Sistematizatzea, beraz, gertatutakoa idaztea edo jardunbide egokiak biltzea baino gehiago da. Ikasketa kolektiboko prozesu bat da, eta, horretan, subjektuek beren burua pentsatzen, interpelatzeko eta berregiten dute. Bide horretan, sistematizazioa tresna pedagogiko eta politikoa bilakatzen da aldi berean; esperientzia bakoitzaren gatazkatik, erresistentziatik eta mugetatik ikasteko modu bat. Ikastea honako hau ulertzea da: hezkuntza edo gizarte prozesu oro ziurgabetasunez beteta dagoela, baina ziurgabetasun horietan eraldaketa aukerak daudela.

Gaur egungo zibilizazio-krisian, autoritarismoak eta bizitzaren merkantilizazioak aurrera egiten duela eta logika teknokratikoek ezagutzak atzematen dituztela, sistematizazioa praktika askatzaile gisa finkatzen da. Ez behin betiko erantzunak ematen dituelako, baizik eta orainari eta etorkizunari buruzko galdera kolektiboak sortzen laguntzen duelako: zer ikasten dugu borrokatzean? zer jakintza sortzen dira zaintzatik eta erresistentziatik? nola kontu ditzakegu prozesu horiek, ikuspegi bizigabeetara eta gauza izatera murriztu gabe? Hala, sistematizazioa itxaropenaren pedagogia bat da, memoria egiteko modu bat, ekintza eraldatzaileko modu berriak orientatzeko helburuz.

Monografiko eta aldizkari hau konprometituta dago eraldaketa horrekin. Hainbat lurraldetako pentsamenduak eta esperientziak uztartu nahi ditugu, hezkuntza eta ikerketa askapen praktika gisa pentsatzeko. Artikulu, elkarrizketa eta proposamen bakoitza ezagutza ekoizteko modua deskolonizatzeko eta bizitza erdigunean jartzeko gonbit bat da. Izan ere, argitalpen honek gogorarazten digun bezala, sistematizatzea ez da prozesuak ixtea, baizik eta elkarrizketara, ikastera eta irudimen kolektibora irekitzea.

Espero dugu zenbaki hau baliagarria izatea, hain zuzen ere, bideaz eta memoria kritiko horretaz ikasten jarraitzeko, horrek gizarte eraldaketarako hezkuntza bat pentsatzeko aukera ematen baitigu, gure praktiketarik.

Juanjo Celorio Díaz
Hegoako Hezkuntza Taldea



Alfonso Torres Carrillok utzitako argazkia.

Sistematizazioa, ikerketa-modalitate eraldatzaile gisa¹

Alfonso Torres Carrillo. Kolonbiako herri-hezitzailea eta gizarte-ikertzailea. Kolonbiako Unibertsitate Nazionalako Historiako masterra, eta Latinoamerikako Ikasketetan doktorea (Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa). Kolonbiako Unibertsitate Pedagogiko Nazionalako irakasle emeritua. Herri-hezkuntzan, herri-antolakuntzako prozesuetan eta partaidetza-ikerketetan parte hartzen eta ikertzen du.

Aurkezpena

Lau hamarkadatan, sistematizazioa (praktikarena, esperientziena) sendotu egin da, Latinoamerikako larrialdi-eremuak, gizarte-lana eta herri-hezkuntza gainditu zituen ikerketa-metodologia gisa. Ezagutza sortzeko modalitate horrek gizarte-, hezkuntza- eta kultura-ekintzako beste arlo batzuk konkistatu ditu, presente dago gizarte

antolatzeko eta mobilizatze zenbait prozesutan, lanbide-heziketan sartu da, eta ikerketa sozialeko metodologia gisa aitortzen da (Bradury, 2015).

Hala ere, sistematizazioaren *hedapen* horrek ez du esan nahi erabat ulertzen denik ekintzari buruzko eta ekintzarako ezagutza sortzeko modu gisa duen berezitasunari dagokionez, ezta bere oinarri epistemologikoari dagokionez ere. Beste edozein metodologia bezala, sistematizazioa ez da egokia edozein gizarte-errealitate berri emateko, eta ez du *edozertarako* balio. Beste idazki batzuetan adierazi den bezala (Jara, 2012; Barragán eta Torres, 2021), egokia da helburu eraldatzaileek bideratutako praktika sozialen (banakakoak eta kolek-

¹ Artikulu honetatik eguneratutako testua: Torres Carrillo, A. (2021). Hacer lo que se sabe, pensar lo que se hace. La sistematización como modalidad investigativa. *Prospectiva. Revista de Trabajo Social e intervención social* (31), 27.-47. or. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/7966311.pdf>

“sistematizazioak oinarri politiko, epistemologiko eta metodologiko propio eta egokiak ere eraiki ditu”

tiboak) berri emateko, edo testuinguruen eta subjektuen aldaketa esanguratsuak sortzen lagundu duten eta dokumentatu ez diren praktika sozialen berri emateko. Sistematizazioak praktika horiek berreraikitze, aztertze eta kritikoki interpretatzeko ahalegin sistematikoa eskatzen du, bai eta posizionamenduak, ezagutzak eta gaitasunak ere; hau da, sistematizazioak oinarri politiko, epistemologiko eta metodologiko propio eta egokiak ere eraiki ditu.

Artikulu hau (*Hariak* aldizkariak eskatutakoa) sistematizazioa justifikatzen eta bultzatzen duten ideietan zentratzen da, bai eta kritika-, interpretazio- eta partaidetza-ikerketa gisa duen oinarri epistemologikoan ere, artikulu honen egilearen ibilbide praktiko eta gogoetatsutik abiatuta, metodologia horren praktikatzaileria eta egilea den aldetik.

Sistematizazioa bultzatzen duten ideiak

Zergatik eta zertarako sistematizatu praktika kolektibo bat? Zein izan dira sistematizazioa bultzatu duten ideiak eta asmoak? Egile batzuetan oinarrituta (Jara, 1994; Cendales, 2004; Carvajal, 2006; Barragán eta Torres, 2021), horri buruzko argudio nagusiak honela laburbil daitezke:

- 1) Praktikak sortutako aldaketak eta jakintzak kritikoki ulertzea. Beren esperientzia sistematizatu nahi dutenentzat, arrazoi bat da bizi izandako prozesuaren begirada egituratuagoa eta sakonagoa izatea. Horrek esan nahi du, alde batetik, praktikan sortu diren errealtate-erakuntzak bereizi behar direla, beti ez baitira bat etortzen eragileek zituzten helburuekin; eta, bestetik, praktikan sortutako jakintza indibidual eta kolektiboak aitortu behar direla, eta ezagutza sistematiko gisa islatu.
- 2) Praktika sendotzea. Zenbait talde eta erakunde sozialek sistematizatzeko erabakia praktika hobetzeko interes kritiko baten ondorioz hartu dute. Hobetzeko asmo horrek, ikaskuntzak berreskuratu eta ikusgai egiteaz gain, taldeen

hausnarketak eta eztabaidak aberastu, eta aktibismoa gainditzeko laguntzen dute, askotan antolakuntzako krisia eta etsipena eragiten baititu. Esperientzia kritikoki berriro eskuratzeko eta hura bideratu duten ideiek aukera ematen dute praktiken eta proiektuen orientabideak eta asmoak berritzeko eta eguneratzeko, gaur egungo erronkei begira; era berean, praktikak eraldatzeko protagonisten konpromisoak eguneratzeko balio du, eduki eta garrantzi handiagoa emanda.

- 3) Beste praktika sozial batzuekiko komunikazioa. Praktika kritikoki eskuratzeko, praktika hori sendotzeaz gain, hari dagozkion ikaskuntzak eta hausnarketak antzeko praktikak eta proiektuak egiten dituzten beste talde batzuei komunikatzeko aukera ere ematen du. Sistematizatu ditugun esperientziek ekarpena egiten diote gogoetazaletasunari eta gizarte-eraldaketari, praxia bideratzen duten ikaskuntzak eta erronka berriak ikuspegi kritiko batetik identifikatzen direnean.

Antolakuntza-proiektua partekatze eta aberasteko beste talde batzuekin topaketak egiteak ezagutza-sareak sendotzen ditu, praktikatzaileria berak jakintzako eta praktika politikoko subjektuak diren neurrian. Halaber, sortutako jakintzek ekarpena egiten diete beste proposamen eta talde batzuei, eta, horiek, interes emantzipatzaile berberetatik abiatuta, egiteko eta izateko modu horiek testuinguruan jar ditzakete berriro, beren ekintza-eremuetan.

- 4) Subjektibotasun emantzipatzaileen produktiorako ekarpena. Praktika sistematizatuz, parte hartzen duten pertsonen eta taldeen desberdintasun- eta bidegabekeria-egoerak eraldatzeko gaitasuna eta aukerak dituzten gizarte-subjektutzat hartzen dute beren burua. Prestakuntza-aukera gisa, jakintza horiek sendotu egiten dituzte erakunde dimentsio politikoak, antolakuntzakoak eta hezkuntzakoak, eta, bereziki, pertsonen ikusteko, sentitzeko eta jarduteko moduak.

“Antolakuntza-proiektua partekatze eta aberasteko beste talde batzuekin topaketak egiteak ezagutza-sareak sendotzen ditu”



Argazkia: Hegoa.

- 5) Ekintza kolektiboa sendotzen du. Subjektu gisa nork bere burua ulertzeko, subjektibotasun kritiko eta emantzipatzaileak sortu behar dira, eta, horiek, beste pertsona eta talde batzuentzat erreferente bihurtzeaz gain, gizarte-mugimenduak aberasten dituzte. Sistematizazioak lagundu egiten du ekintza kolektiboaren zentzu-horizontea, subjektuen interpretazio-esparruak eta haien nortasunen eraketa zabaltzen, eta elkartasun-loturak sendotzen.
- 6) Lotura eta ideia komunitarioak eraikitzea. Sistematizazioak, partekatutako memorien, esperientzien eta ametsen inguruko topaketak, memoriak eta narratibak eragitean, lotura, esanahi eta etorkizuneko ikuspegi kolektiboak eratzen laguntzen du. Talde gisa berriz elkartzeak eta aitopenen jasotzeak elkarrekin egotearen eta aritzearen poza agerian utzi, eta proiektu partekatuaren kide izatearen sentimendua adierazten dute; hala, sistematizazioak komunitate-zentzu zaharrak eta berriak eratzen ere laguntzen du, "gu" baten sentimendua, eragile kolektibo gisa (Cendales eta Torres, 2006).
- 7) Pentsamendu emantzipatzaileari eta partaidetza-metodologiei ekarpena egiten die. Bizitzako munduari eta haren indar eraldatzaileari buruzko ekintzak eta hausnarketak ikusgai egiten dituzte Hegoaldeko teoria kritikoen egungo diskurtsoei eta estrategiei egindako ekarpenak eta erronkak. Sistematizazioaren izaera lokalizatuak aukera ematen du hainbat subjektu kolektibo eta jakintza sortzeko

moduak bereizteko, zalantzan jartzeko eta berresteko. Sistematizazioan sortutako jakintza teorikoak eta metodologikoak partaidetza-ikerketari egindako ekarpenak dira; izaera lokalizatua dela-eta, gizarte-erakundeei berriz lantzeko eta bereganatzeko aukerak eskaintzen dizkiete.

Sistematizazioa, kritika-, interpretazio- eta partaidetza-ikerketak gisa

Orain arte hezkuntza berritzeko eta eraldatzeko egin ditugun praktikei buruzko gure esperientzia sistematizatzaren garrantzia aitortzea ez da nahikoa metodologia honen egokitasuna eta munta justifikatzeko. Argudiatu egin behar da nola ulertzen dugun sistematizazioa, eta zer funts epistemologikotan oinarritzen den. Izan ere, bitarteko akademikoetan eta ikerketa-bitartekoetan nagusi den gizarte-zientziaren ikuskeraren arabera, lehendik dauden teorietatik abiatuta eta alde zurretik zientifikotzat jotako metodologiak erabiliz bakarrik sortu daiteke baliozko ezagutza.

Sistematizazioak, praktika kolektiboari buruzko ikerketa-modalitate gisa, zenbait galdera planteatzea eskatzen du. Adibidez: Zer ezagutza-mota sortzen da sistematizaziotik? Zer irismen du? Praktika, esperientzia eta jakintzaren zer ikuskeratan oinarritzen da sistematizazioa? Nola hartzen dute parte praktikaren protagonistek eta haien jakintzek ezagutzaren produkzioan?

Asociación Dimensión Educativa izenekoan eta Unibertsitate Pedagógico Nacionaleko ikertzaileen eta herri-hezitzaileen taldean egin dugun ibilbidean, sistematizazioa interpretazio kritikoren ikuspegitik ulertu dugu, eta, metodologiari dagokionez, partaidetzako ikerketa kualitatibo gisa. Aukera hori gizarte-azterketa kritikoen eremuarekin eta Latinoamerikako eta Karibeko beste ikertzaile eta herri-hezitzaile batzuekin izandako elkarriketa emankorretik ere eraiki da.

Hurrengo lerroetan, esperientziak sistematizatzeko ikuskera bat aurkezten da, gizarte-zientziaren interpretazio-ikuspegiaren eta ikuspegi kritikoen barruan kokatzen dena, gizarte-ikerketako metodo kualitatiboekin eta partaidetza-metodoekin lotuta (Carr eta Kemmis, 1988; Torres, 1997). Ikuspegi horiek ikerketaren asmo eraldatzailea aldarrikatu,

praktika eta erakunde sozialen dimentsio kulturala eta intersubjektiboa baloratu, eta eragileak eza-gutza-produkzioaren berezko erabaki eta eragiketetan inplikatzeko dituzte.

Ikuspegi horretatik, esperientzien sistematizazioa jotzen dugu gizarte-ekintzako edo hezkuntza-ekintza eraldatzaileko praktikari buruzko eza-gutza sortzeko partaidetza-modalitate bat, narrazioaren berreraikuntzatik eta horiek osatzen dituzten dimentsio, ideia eta arrazionaltasunen interpretazio kritikotik abiatuta, haiek indartzea eta dagokien eremu tematikoa teorizatzen laguntzea baitu helburu.

Definizio horrek sistematizazioaren ezaugarri nagusiak barne hartzen ditu, eta jarraian labur-labur deskribatuko ditugu.

Ezagutzen nahitako produkzioa da

Sistematizazioa ez da berez sortzen egiten denari buruzko eztabaida eta hausnarketa hutsarekin; praktiketan dauden eguneroko irudikapen eta jakintzak aitortzea eta, aldi berean, gaingitzea dakar. Lehen ezaugarri horrek maila epistemologikoan kokatzen gaitu. Hots, posizio kontziente bat izan behar dugu honi buruz: nondik, zertarako eta nola sortzen den eza-gutza soziala, eta zein izango diren haren irismena eta eragina praktikan. Esplizitatu egin behar da nola ulertzen ditugun sistematizatu beharreko errealtatea, horren inguruan sortu dezakegun eza-gutzaren izaera eta hori egiteko estrategia metodologiko koherentea; horri esker, praktika horiek interpretatzeko eta haietan parte hartzeko leku komunetatik (akritikoak) atera gaitzeko.

Praktikari berari buruzko eza-gutza sortzeko asmo esplizituak denbora esplizituki eskaintzea eskatzen du, *bidean geldialdi* bat egitea, sistematizazioa egituratzeko galderak eta ardatz tematikoak definitzeko; esperientzia komuna berreraiki, aztertzea eta interpretatzeko balioko duen estrategia bat diseinatu ahal izateko; lan-plana gauzatzeko;

“esperientzien sistematizazioa jotzen dugu gizarte-ekintzako edo hezkuntza-ekintza eraldatzaileko praktikari buruzko eza-gutza sortzeko partaidetza-modalitate bat”

eta planaren aurrerapenak sozializatzen joateko. Hala, sistematizazioak praktika etetea ez badakar ere, hori gauzatzeko behar diren taldeko edo instituzioetako asmoak, denborak eta baliabideak hedatzea eskatzen du.

Ezagutzen produkzio kolektiboa da

Partaidetza-ikerketak, Ekintza-ikerketak eta Historiak Modu Kolektiboan Berreskuratzeak bezala, sistematizazioak eza-gutza-subjektu gisa onartzen eta eratzen ditu esperientzian parte hartzen duten eragileak. Kanpoko espezialistek zer ekarpen egin dezaketen kontuan hartuta, eragile horiek dira, hain zuzen ere, ikerketaren erabaki nagusiak hartzen dituztenak.

Sistematizatzeko prozesuan parte hartzeak ez du esan nahi denek denetarik egin behar dutenik. Aitzitik, erakundeko kideek hartzen dituzte ikerketa-erabaki nagusiak: zergatik eta zer sistematizatu, nola egin, informazioa nola aztertu eta interpretatu, emaitzak noiz eta nori jakinarazi, zer egin ulertzen dugunarekin, etab. Kasu gehienetan, batzorde arduradun bat eratzen da, kontuak ematen dituenak, eta, beharrezkoa denean, talde osoa tartean sartzen duena. Parte-hartzearen bermea erakundeak aurretik izandako antolakuntza-prozesuen eta sistematizazioak berak sortzen dituen trebakuntza-guneen mende dago. Parte-hartzaileak informazioa biltzeko eta antolatzekeko teknikekin ohitu behar dira pixkanaka, baita informazioa *idazteko* eta interpretatzeko prozedurekin ere, beste batzuei jakinarazteko eta haiekin eztabaidatzeko.

• Hezkuntza-praktiken konplexutasuna aitortzen du

Praktika horiek helburu, jarduera, eragile, rol eta antolakuntza-prozesuen batura baino askoz gehiago dira, nahiz eta erakundeen ebaluazioak, oro har, horietan oinarritu. Testuinguru politiko, sozial eta kulturelek baldintzatzen dituzte, eta testuinguru horietan sortu, formulatu eta gauzatzen dira. Sistematizazioak subjektu indibidual eta kolektiboak tartean sartu, eta sortu egiten ditu aldi berean; eragileen arteko ekintzak (nahitakoak edo ez) eta harremanak hedatzen ditu; zentzu bat eraikitzen du, instituzionaltasun bat, esanahi eta erritu propio batzuk, kultura instituzional bat. Era berean, eragileek modu desberdinetan hautematen dute, eta,

horrenbestez, modu desberdinetan jarduten dute, ez beti batera. Efektuak (aurreikusitakoak edo ez) eragiten ditu jarduten duen testuinguruan; kontingentzien eta bizitza sozialaren beraren zoriaren mende dago.

Sistematizazioaren helburua praktika sozial bakoitza osatzen duen osotasun zehatza berreraikitzea da, eragileek ematen dizkieten eta *indar-eremu* bat osatzen duten esanahiak pribilegiatuz, eremu horrek indarrak bultzatzen dituzten taldeen eta subjektuen identitatea eratzen baitu. Horrek ez du esan nahi ikerketa ardazten duten ardatz problematikoak definitu behar ez direnik. Ardatz horiek, oro har, taldeak definitzen ditu, une horretan dituen beharren arabera.

• **Praktika subjektuen esperientziatik abiatuta berreraikitzen du**

Konpondu nahi dituen beharretatik sortutako aurretiko problematizaziotik abiatuta edo ez, sistematizazioak, hasiera batean, esperientziaren kontakizun deskribatzaile bat sortzea du helburu; esperientziaren ibilbidea eta konplexutasuna berrigitea, praktikari buruz zerbait esateko duten eragileen begiradetan eta jakintzetan oinarrituta. Zenbait elkarrizketa- eta narratiba-teknikatik abiatuta (hizketaldiak, oharak, eztabaida-taldeak, soziodramak, solasaldiak, etab.), parte hartzen ari diren subjektuen kontakizunak eragin nahi dira, haien interpretazioak ezagutzeko eta esperientzia artikulatzen duten gai esanguratsuak identifikatzeko. Hala, zatikatuak, partzializatuak eta batzuetan kontraesankorrak diren begiradetatik, sistematizazioaren xede den praktika hasiera batean deskribatzen duen makrokontakizun bat eratzen da.

• **Esperientzia osatzen duten logika eta ideiak kritikoki interpretatzen ditu**

Sistematizazioak, praktika subjektuen esperientzian oinarrituta berreraikitzeaz gain, bere logika partikularren berri eman nahi du, hura osatzen duten ideien berri. Talde sistematizatzaileak esplizituki interpretaziozkoa den rola hartzen du esperientzia egituratzen duen azpiko *gramatika* agerian jartzen saiatzean; haren faktore eragingarriak edo ezartzaileak, erlazio estrukturalak eta batasuna ematen dioten edo zatikatze-iturri diren gako kulturalak identifikatu nahi ditu.

Laburbilduz, sistematizazioak eragileen kontakizunetatik harago joango den interpretazioa eragin behar du, haiek *aurreikusi* edo *ikusi* ez dituzten eta praktikari buruzko aurretiko begirada konplexuagoa egiten duten elementu eta faktoreak barne hartzen dituen. Horretarako, esplizitatu eta sendotu egin behar dira eragileen ikuspegietan oinarritutako interpretazio-hipotesiak, baita sistematizazioa azterketa zorrotzen, espezialistei egindako kontsulten eta prozesuan zeharreko eztabaiden bidez egiten dutenen oinarri teorikoak ere.


• **Praktikaren gaitasun eraldatzailea bultzatzen du**

Deskribatutako irismen kognitiboez gain, sistematizazioak interes pragmatiko bat du: praktika bera hobetzea; hots, beharrezko doikuntzak, desplazamenduak eta aldaketak sortzea, sistematizatutako programak edo proiektuak eraginkortasun sozial eta aberastasun kultural handiagoak izateko. Hori ez da ondorio mekaniko bat, ezta azken erabaki bat ere. Kontzienteki egin behar da sistematizazioan zehar; adibidez, eragileek praktikaren dinamikei, erlazioei eta interpretazioei buruzko begirada zabaltzen duten heinean, beren ekintzak berbideratzen dituzte.

• **Lagundu egiten dio praktika sozialen teorizazioari**

Sistematizazioari buruz hausnartzen dugunon artean eztabaidagai den kezka bat sortutako ezagutzen irismenari buruzkoa da; posizioek jarrera epistemologiko desberdinak adierazten dituzte, jakitun izan ala ez. Batzuen ustez, sistematizazioaren helburua orokortze *zientifikoak* egitea da: gizartea azalduko duten teoriak eta legeak egitea. Beste batzuen iritziz (neu barne), helburua praktika sozial jakin batzuk osatzen dituzten ideiak ulertzea da, eta, hortik abiatuta, arlo soziala ulertzea ahalbidetuko duten interpretazio-eskemak sortzea.

Kasu batean eta bestean, sistematizazioak sortutako ezagutzek –komunikatzen diren neurrian– gizarte-errealitatearen arlo bati edo batzuei buruz dugun ezagutza zabaltzen dute; esate baterako, irakasleen prestakuntza, gizarte-mugimenduak, herri-erakundeak, herri-hezkuntza, pedagogia kritikoak edo hezkuntza-berrikuntza. Praktika-eremu berari buruzko sistematizazio batzuen balantzeak hedadura teoriko handiagoko hausnarketa teorikoak eragin ditzake.



Argazkia: Hegoa.

Ondorioak

Sistematizazioak, gizarte-ekintzatik abiatuta, gizarte-ekintzarako partaidetzako ikerketa-metodologia den aldetik, metodologia osatzen duten arrazionaltasunak, hura oinarri hartuta eraikitzen diren jakintzak eta sortzen dituen eragin sozial eta subjektiboak hobeto ulertzea du helburu; gainera, interes kognitibo hutsa gainditu, eta gizarte-bizitzako beste dimentsio batzuetan eragitea bilatzen du, hala nola praktika horiek indartzea, haiek egiten eta ikertzen dituzten subjektuak ahalduntzea, eta lotura eta ideia komunitarioak eraikitzea.

Sistematizazioak, praktika sozialei buruzko ikerketa-metodologia gisa, gizartearen ontologia dialektikoa eta erlazonala du oinarri. Ontologia horrek praktiken historikotasuna eta testuingurua aitortzen ditu, bai eta izaera materiala, sinbolikoa eta intersubjektiboa ere, gizarte-baldintzapenen eta subjektuen agentzia-gaitasunaren arteko elkar-tzetik berreraiki eta interpreta daitekeena, haien mundu-ikuskerak, kultura-unibertso eta subjektibotasunetatik abiatuta.

Ikerketa-praktikak aztergai diren ekintzen berreraikitze historikorako eta gizarte-karakterizazioarako estrategiak egituratzen ditu, bai eta hura eratzen eta orientatzen duten esanahien berreraikitze narratiborako estrategiak ere; protagonisten interpretazio-gaitasuna aitortzen du, bai eta iker-tzaileen eta metatutako kontzeptu espezializatuen ekarpena ere. Halaber, ikerketan zehar izaten diren

pixkanakako aurkikuntza eta ulermenak etengabe sozializatzeko beharra jasotzen du, eta, horretarako, zenbait komunikazio- eta pedagogia-estrategia erabili behar dira.

Bibliografia

Barragán, Disney eta Torres, Alfonso (2021): *La sistematización como investigación interpretativa crítica*, Bogota, El Búho – Corporación Síntesis (bigarren argitaraldia).

Bradury, Hilary (argit.) (2015): *The SAGE Handbook of Action Research*. Londres, SAGE.

Cendales, Lola (2004): “La metodología de la sistematización. Una construcción colectiva”, in *Aportes* # 57, Bogota, 24.-33. or.

Carr Edward eta Kemmis Stephen (1988): *Teoría crítica de la enseñanza*. Bartzelona, Martínez Roca Editores.

Cendales, Lola eta Torres, Alfonso (2006): “La sistematización como experiencia investigativa y formativa”. *La Piragua*, 23, 29.-38. or.

Jara, Óscar (1994): *Para sistematizar experiencias*, Costa Ricako San Jose, Alforja.

Jara, Óscar (2012): *La sistematización de experiencias. Práctica y teoría para otros mundos posibles*. Costa Ricako San Jose, Alforja.

Torres, Alfonso (1996): “La sistematización desde la perspectiva interpretativa”, in *Aportes* # 44, 23.-38. or.

Torres, Alfonso (2004): “Sistematización de experiencias de organización popular”, in *Aportes* # 57, 34.-51. or.



Argazkia: Articuladxs.

Komunitateen borrokak aberasten dituen ikerketa. Unibertsitate eremu kritikoetatik artikulatutako sistematizazio baten ikaspenak

Amaia del Río, Gema Celorio, Juanjo Celorio, Julio R. Jaime, Robinson Piñeros, Andrea Rey eta Axel Rojas.

Ikerketa ez da ariketa akademiko inozoa edo lausoa, baizik eta jokoan zerbait jartzen duen jarduera bat, baldintza politiko-sozial jakin batzuetan garatzen dena. Linda Tuhiwai Smith (2016: 24.or.).

Nondik sortzen dira hausnarketa hauek: *Articuladxs* ikasketa-iturri gisa

Artikulu honek *Articuladxs*¹ prozesuan ikasitakoa jasotzen du. Prozesua batera garatu dute, batetik, Caucaoko Unibertsitateko **Taller de Etnografía ikerketa-mintegiak** eta Hego Kolonbiako Unibertsitateko **In-SUR-Gentes ikerketa-taldeak** eta Investigación en Prácticas Educativas y Sociales (IPES) ikerketa-taldeak, eta,

1 *Articuladxs* prozesua Gizarte Eraldaketarako Hezikuntzaren arloko bi proiektuk osatzen dute. Proiektuak 2022an eta 2025ean garatu ditugu, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren laguntzaz, eta honako hauek dira: “Articulación vasco-colombiana para la experimentación, el aprendizaje y la comunicación de otra educación posible en tiempo de pandemias intermitentes” (2022-2023) eta “Articulación vasco-colombiana para experimentar, aprender y comunicar la educación emancipadora y la investigación crítica colaborativa” (2024-2025).

bestetik, **Euskal Herriko Unibertsitateko He-
goa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari
Buruzko Ikasketa Institutuak**. Prozesua, bada,
kultura akademikoaren eta ekoizpen sozialaren
arteko artikulazio-logikak entseatzera bideratu
da, hain zuzen ere, gaur egungo ekonomia, gizar-
te, ekologia eta kultura arloetako erronkei aurre
egingo dien ezagutza esanguratsua sortzen lagun-
tzeko helburuz.

Horixe da jarraian azalduko ditugun hausnarketen
esparrua. Hausnarketa horiek guztiak ikerketa tal-
deen arteko topaketatik sortzen dira, lau urteko
prozesu batean zehar. Horretan, aipatutako era-
gileek ezagutza emantzipatzaile baten elementu
kritikoei buruz hitz egin eta elkarrekin hausnartu
dute, eta eztabaidatu egin dute nola bideratu Uni-
bertsitatea gizarte konpromisoa eta munduaren
eraldaketa helburu dituen zeregin akademikora.

Bada, *Articuladxs* prozesuaren irakurketa inte-
gral bat proposatzen dugu. Horretan, sistemati-
zazioak mintegietan, tailerretan eta jardunaldie-
tan egindako prozesu kolektiboa aintzat hartzen
dugu, eta, hala, *Articuladxs* taldearen eta beste
irakasle, ikasle eta gizarte mugimendu batzuen
arteko eztabaida eta elkarrikketa baliatzen dugu.
Hain zuzen, jarduera horiek funtsezkoak izan dira
ezagutzek eta subjektuek elkarrengandik ikas
dezaten. Estrategia horiek guztiek aukera eman
dute, besteak beste, Euskadin eta Kolonbian ga-
ratutako ekimenen memoria kokatua berresku-
ratzeko, praktikatik teoria ekoizteko eta kolekti-
boan ikasteko. Hala, hausnarketa balio handiko
elementua izan da, eta zentzua eman die proze-
suan bultzatutako ekintzei.

Artikulu honetan ikerketa kritikoan funtsezkotzat
jotzen ditugun elementuak bildu ditugu, ikuspe-
gi kritikoak sartzeak eskaintzen duen orientazio
eraldatzailea landu dugu; eta, amaitzeko, Uniber-
tsitate publikoak aldaketa ekosozial, feminista in-
tersektional eta dekolonial baten eragile gisa duen
eginkizuna berregituratzeko aukerari buruz haus-
nartu dugu.

Bizitzarekin konprometitutako ikerketa kritikoaren definitzeko bidean

Ikertzea ezagutzea da, gure gizartearen ordenak
nola jarduten duen ulertzen lagunduko diguten

ezagutza berriak sortzea, alegia. Kapitalismoaren
garapenean oinarritutako mundu batean bizi ga-
renez, ikerketa kritikoak gizarte ordena hori eral-
datuko duen ezagutza ekoizteko helburua du, eta,
hortaz, agerian jarri behar du nola erreproduzitzen
dituen ordena horrek zapalkuntzak. Beraz, ikerke-
ta kritikoak ezagutzera eman nahi du nola sortzen
dituen botereak desberdinkeria eta pribilegioak,
eta ordena hori eraldatuko duten esku-hartze ko-
lektiboko moduak sortzeko konpromisoa du.

Bada, bere helburua ez da errealitatea deskriba-
tzea edo azaltzea bakarrik, baizik eta hura kritikoki
ulertzea eta zentzu askatzaile batean eraldatzea.
Ezagutzak –zientifikoak, sozialak, artistikoak– sor-
tzeko konpromiso politiko-etikoa da, eta desber-
dinkeria eta zapalkuntzak bistartzeko eta gain-
ditzeko, erresistentzia sortzeko, eta alternatiba
eraldatzaileak aktibatzeke helburua du. Honako
hauek dira bere iturri nagusiak: Teoria kritikoa
(Frankfurteko Eskolako Horkheimer, Adorno eta
Habermas), pedagogia kritikoa (Freire eta Herri
Hezkuntza, Erresistentziaren Teoriak) eta Ikerketa-
-Ekintza-Partaidetza (Fals Borda).

• Dimentsio etiko-politikoaren.

**Ikerketa justizia-ekintza gisa eta beste
mundu bizigarri batzuetara igarotzeko
ardurakidetzako ekintza gisa**

Alderdi honek ikerketaren garrantzia iradokitzen
du. Bizitzarekin konprometitzen den ikerketak,
izan ere, zertarakoa pentsatzen du, eta duintasu-
nari, bizitzaren erreproduktzioari eta beste mundu
posible batzuk eraikitzeke aukerari buruz hausnar-
tzen du. Zertarako ikertzen dugu? Zerk kezkatzen
gaitu gaur egun? Eralda dezakegu ezagutu gabe?
Lantzen dugun ikerketaren helburua ez da ezagu-
tza ekoiztea bakarrik, justizia eta itxaropena ere
piztu nahi ditu menpeko egoeran dauden gehien-
go sozial horientzat, emantzipazioa nahi duten ho-
rientzat. Ikerketa-galderak ikergaiaren eraginpean
dauden subjektuen kezka eta problematiketan oi-
narritzen dira. Hori da errealitatea ikertzeko espa-
rru etikoa, hura eraldatzeko.

“ Ikerketa-galderak ikergaiaren
eraginpean dauden subjektuen
kezka eta problematiketan
oinarritzen dira ”

Beraz, ikerketaren helburua da dominazio-harremanetan aurkitzen diren egiturak, botereak eta dinamikak identifikatzea, gu aktiboki mobilizatzeko eta proiektu askatzaileak eraikitzeko. Errealitatea sozialki eraikita dagoela eta ez dela ekidinezina, hau da, eraldagarria dela erakusten duten ezagutza-modu berriak aurkitzera animatzen gaitu. Planetako kolektibo eta komunitate askok jasaten dituzten zapalkuntzak, beraz, alda daitezkeen logiken ondorio dira.

Gizarte eta ingurumen justizian, ekitatean eta elkartasunean oinarritu behar diren ezagutza kritikoaz eta ekintza ahalduntzaileaz ari gara. Hala ere, hartzen dugun justizia-zentzuari arreta eskaini behar diogu. Maiz, hausnarketa sakonagorik ezean, erabiltzen ditugun gizarte-justiziaren nozioek desparekotasunak ezkuta ditzakete, ez baitituzte kontuan hartzen identitatearen edota generoko, etniako, erlijio, klaseko, sexu orientazioko edo gorpuztasuneko adierazpenaren dimentsioen arteko intersekzioak. Gainera, gaur egungo krisi sistemikoan, planeta osatzen dugun izaki guztietara zabaldu behar dugu justiziaren nozioa; izan ere, bizi dugun zibilizazio-krisiak ondorioak ditu, ez soilik pertsonengan, baizik eta naturan ere. Hortaz, gizarte eta ingurumen justiziaz ari gara. Zentzu horretan, ikerketak orientazio ekosoziala izan behar du; hau da, ekosistemaren iraunkortasunarekin eta mundu bizigarrien eraikuntzarekin konprometitu behar da.

• Ezagutza, lurraldeko borrokak eta gizarte eraldaketa lotzen dituen ikuspegia

Ezagutza kritikoaren ekoizpenak errealitatea eraldatzeko helburua du. Halaber, autonomia eta erresistentzia modu solidarioak sustatzen dituzten komunitateen antolakuntza-estrategiak indartu nahi ditu. Ikerketa kritikoa, bada, jardunbide kokatua da, eta komunitateko gorputzekin eta jakintzekin dihardu, bizitzaren iraunkortasuna eta guztion ona bilatzen duten alternatibak planteatzeko.

Borroka askatzaileekiko harreman eta hausnarketa horretatik sortutako ezagutza lagungarria da gertatzen ari dena ulertzeko, zapalkuntzez jabetzeko eta arazoari konponbideak bilatzeko, elkarrekin, hau da, komunitate antolatuen eta prozesu horiekin elkartasun eta lankidetzaren harremanak ezartzen dituzten horien artean (Unibertsitatea, gizarte erakundeak...).

Testuinguruari datxekion ikerketa da, bere lurraldeko izakiei lotuta dagoena. Beraz, ezagutza unibertsalista sortzeko asmoa baztertzen du, gainditu beharreko joera eurozentriko eta positibistatzat jotzen baitu hori. Hala ere, Ikerketa-Ekintza-Partaidetza (IEP) metodologiak irizpide eklektikoago baten alde agertu da. Hain zuzen ere, ikerketa lana beren gain hartzen duten komunitateek edo kolektiboek sentitzen dituzten



Argazkia: Articuladxs.

“ ikerketa komunitateekin
batera garatzen da, eta elkarrekin
horizontaltasunez eraikitze
helburua du ”

arazoetatik abiatzea proposatzen du, eta metodoa ikertu beharreko arazoen arabera zehaztea. Beraz, garrantzitsua da metodoa bere orientazio politikoaren arabera pentsatzea; hau da, tresnei (kuantitatiboak, kualitatiboak) ematen zaien erabileraren arabera, desparekotasunak nola sortzen diren argitzea.

Bere errealitatea aztertzen duen ikerketa erroten baten alde gaude. Hain zuzen, eskubideak beren dimentsio guztietan leheneratzen dituen orain-etorkizun bat eraikitzen duen ikerketaz ari gara.

• Artikulazioa herri eta komunitate subjektuekin, ezagutzaren ekoizpenean zentralak baitira

Gizarte prozesuekiko harremanak, bada, haien protagonistekin artikulatzea eskatzen du, hau da, lurralde horietan bizi diren eta beren errealitatea eraldatzeko borrokatzen diren subjektuekin eta komunitateekin. Harremanak izateko eta ikeritzeko modu horrek subjektu horien zentraltasuna onartzen du. Haiek, izan ere, subjektu aktibo bilakatzen dira memoriarekin konprometitutako ezagutza horren eraikuntzan, eta beren ezagutza kokatu eta errotuaren bitartez historia egiteko prest daude.

Zentzu horretan, ikerketa komunitateekin batera garatzen da, eta elkarrekin horizontaltasunez eraikitze helburua du. Hala, subjektu/objektu harreman konbentzionala eraldatzen dugu eta subjektu/subjektu harremanetan oinarritutako ikerketa komunitateak sortzen ditugu. Zentzu horretan, harreman horiek ezagutzen arteko hierarkiekin ere hausten dute, eta jakintza herritarren balioa aintzat hartzen dute. Azkenik, ikerketa horrek zailtzen jartzen du teoriaren eta praktikaren arteko harremana. Izan ere, horiek esfera autonomo gisa hartu ohi dira, eta kolektiboki ekoizitako ezagutza eta teoria kritikoetan oinarritutako praktikaren garrantzia nabarmentzen du. Hau da, praxi eraldatzailearen terminoetan pentsatzea proposatzen du.

Halaber, garrantzirik gabekotzat hartu ohi diren subjektuen eta menpeko egoeran kokatutako eta baztertutako kolektiboaren historia kritikoki berreskuratu beharra dagoela onartzen du. Izan ere, Akademian nagusi den ezagutza arrazionalak eta objektiboak subjektu horien ekarpenak eta esperientziak baztertzen ditu oraindik ere. Hain zuzen, ezagutza akademiko hori bizitza zapaltzen duen kapitalismo estraktibista, kolonial eta arrazistako eredu hegemonikoan oinarritzen da.

Kasu askotan, subjektu diren gizarte erakunde eta kolektibo horiek, Iparralde zein Hegoalde globalekoak, aspalditik dabilta egiteko, harremanak izateko eta ezagutzara hurbiltzeko beste modu batzuk erabiltzen, beren lurraldeetan garatzen dituzten esperientzietatik eta borroka sozialetatik. Beste kasu batzuetan, ikuspegi kritiko eta eraldatzaileen arabera jardun nahi duten kolektibo eta talde hasi berriak dira. Beraz, beti ekoizten eta eraldatzen duen arlo horretan dauden esperientzien aniztasuna aintzat hartu behar dugu.

• Botere harremanen aintzatespena eta elkarriketa kritikoa

Ikerketa-prozesuak tartean dauden komunitate eta subjektuekin batera eraikitze, aintzat hartu behar ditugu haien parte hartze eta antolatze-dinamikak, eta haien jakintzak eta ezagutza ekoizteko moduak. Jakintza horietan ere kontraesanak eta botere-harremanak izango dira, baina horietaz jabetzea, bada, komunitateekin konprometitutako ikerketak egitearen konplexutasunaren parte da.

Ikerketa zintzo baterako, beraz, beharrezkoa da tentsio horiei buruzko eztabaida kritikoa egitea, dauden desparekotasunen egoera eraldatu nahi badugu behintzat. Hain zuzen ere, “barrurako” eta “kanporako” eztabaida kritikoaz ari gara; pribilegioa ez baitator “kanpotik” bakarrik, “barruan” ere badago. Ez da nahikoa akademiaren eta komunitatearen arteko harremanak eraldatzea tokiko kulturen erroretako desparekotasunek eta pribilegio-sistemek (zaintzan, jabetzan, Estaturako sarbidean, ezagutza...) komunitatean iraungo badute.

“ Halaber, garrantzirik gabekotzat hartu ohi diren subjektuen eta menpeko egoeran kokatutako ”



Argazkia: Articuladxs.

Lan kolaboratibo horrek denbora, entzutea, konfiantza eta inplikazioa eskatzen ditu. Lurraldeetan gertatzen denarekin konprometitzen diren ikerketa horiek, bada, komunitateen eta gizarte kolektiboaren eskaerei entzuten diete, haien galde-rei erantzuten saiatzen dira, haien erritmoak eta kultura-kodeak errespetatzen dituzte. Jardunbide hura erabat desberdina da planteamendu estruktibistekin alderatuta. Izan ere, azken horiek –maiz Akademiak sustatuta ere–, ikertzailearen interesetarako erabiltzen dute komunitateak emandako informazioa, eta, hala, subjektuen eta jakintzen arteko hierarkiak indartzen dituzte.

Esku-hartze horren aurrean, parekoen arteko elkarriketaren aldekoak gara. Horrek, bada, kanpoko eragile aditua izango bagina bezala jarduteari uzteko eskatzen du, eta gure pribilegioei buruzko hausnarketa sakona egiten laguntzen digu. Eskatzen du, hortaz, ezagutzaren ekoizpena zeharkatzen duten botere-harremanak aintzat hartzea; hau da, Akademiaren eta komunitatearen arteko asimetriez gain, komunitateen barneko desparekotasunak mahaigaineratzea eta horien ondorioak arintzea. Horretarako elkarrekin hausnartu beharra daukagu, justizia eta emantzipazio interesetan oinarrituta. Laguntzeaz ari gara, elkarrekin ikasteaz, ezagutza berri horren aldaketa eraldatzaileak lortzeko agenda komun bat sortzeaz. Konfiantzan

eta elkar errespetatzean oinarritutako elkarriketa kritiko batek bakarrik baliatu ahal izango ditu Akademiak eskaintzen dituen aukerak komunitateentzat esanguratsua den ezagutza bat sortzeko. Hala, harrokeria eta nagusikeria epistemologikotik urruntzen gara.

• Komunitatea zaintzea, bere prozesuak zaintzea

Subjektuek parte hartzeko, beren errealitateari buruz hausnartzeko eta alternatibak planteatzeko baldintza seguruak sustatzeak aukera ematen digu kolektiboaren zentzu politikoa garatzeko eta komunitatea egiteko. Ikerketa kritikoa, beraz, prozesu askatzaile eta ahalduntzaile bilakatzen da ariketa kolektibo horretan parte hartzen dutenentzat. Halaber, guztien onaren logikan pentsatzeko, aritzeko eta harremanak izateko aukera ematen digu. Hausnartzeko eta lurraldea babesteko interesa adierazten du, eta taldearen ongizatea sustatzen du merkantilistak ez diren ikuspegietatik.

Prozesu horietan parte hartzeak kide izatearen sentimendua, ardurakidetzeta eta elkartasuna indartzen ditu pertsonengan, beren gizarte-proiektua bereganatzeraino ere. Hala, komunitate-zentzua ere indartzen du, hain zuzen ere, zaintzan oinarritutako gizarteak eta bizitza duin eta zoriontsuak garatzeko inguru bidezkoak ekitatiboak eta iraunkorrak sortzeko beharrezkoak diren konplizitateak behetik ehuntzen dituen subjektu politiko gisa. Bada, komunitatea egitea ikerketa-prozesuaren parte da. Esan dezakegu ikerketa-prozesu horren bitartez errealitatea ere aldatzen dugula, komunitatea egiten dugun heinean.

Gainera, komunitateari lotutako zaintza hori ikerketa taldera eta ikerketaren emaitzetara ere eramaten dugu, horiek beste helburu batzuekin ins-

“ Konfiantzan eta elkar errespetatzean oinarritutako elkarriketa kritiko batek bakarrik baliatu ahal izango ditu Akademiak eskaintzen dituen aukerak komunitateentzat esanguratsua den ezagutza bat sortzeko ”

“ Bizitza defendatzeko ikertzean, beharrezkoa da desobedientzia epistemikoa ”

trumentaliza ez ditzaten. Horixe da ezagutza askatzailearen oinarrietako bat; izan ere, gizartea eraldatzeko helburua duen bizi-proiektu gisa ulertzen dugu ikerketa. Bizitza zaintzea, norbera zaintzea, besteak zaintzea eta beste printzipio batzuk dira ezagutza kiritikoaren zeregina bereizten dituztenak, herri prozesuak bere mesederako erabiltzen dituen ezagutzaren aurrean.

• Desobedientzia epistemikoa

Bizitza defendatzeko ikertzean, beharrezkoa da desobedientzia epistemikoa. Izan ere, logika horrek modernitatearen dinamikei aurre egiten die, ezagutza ekoizteari dagokionez, beste jakintza batzuk aintzat hartzen ditu, eta “baliozko ezagutza” zer den eztabaidatzen du.

Beraz, ikerketa konprometituaren ezaugarri den heinean, desobedientzia epistemikoak:

- Zalantzan jartzen du honako toki eta subjektu bereizi hauek daudenik: batetik, ezagutza ekoizten dutenak eta, bestetik, ezagutza hori kontsumitzen dutenak.
- Ezagutzaren neutraltasunaren ideia baztertzen du. Izan ere, ulertzen du esperientzia historikoek, kulturek eta egunerokoek eta jardueraren atzean dauden pertsonen emozioek erabat zeharkatzen dutela jardura zientifikoa. Hala, agerian uzten ditu beste era batera ezkutuan geratuko liratekeen interesak.
- Errealitatea ulertzean, ezagutza sinplifikatze- eta hierarkizatze- garamatzaten irakurketa bitarrekin hausten du. Honelako dikotomiak arbuatzen ditu: arrazoa-emozioa, gogamena-gorputza, gizona-emakumea, kultura-natura, teoria-praktika... Ezagutzaren subjektuaren eta objektuaren artean horizontaltasun harreman bat ezartzea proposatzen du, desparekotasuna eta menpekotasuna gainditzeko.

Ezagutza zientifikoa baliozko eredu bakartzat hartzen duen ideari aurre egitean, egia absolutuei buruzko susmoak pizten zaizkigu, eta ezagutzara hurbiltzeko modu anitzak aintzat hartzen ditugu.

Hala, interesgarria da Arturo Escobarren “pluri-bertso” nozioan sakontzea; izan ere, horrek askotariko jakintzak eta bizimoduak kontuan hartzera animatzen gaitu, garapen ikuspegi hegemonikoa gaindituz. Epistemizidio modernoak gainditzeko, bada, mundua ulertzeko logika eurozentrikoei, estraktibistei, antropozentrikoei eta patriarkalei aurre egin behar diegu.

Ikerketa eta izan daitezkeen beste mundu batzuen eraikuntza lotzen dituzten ikuspegi kritikoak

Arestian aipatutako ezaugarri horiek dituen ikerketa baterako beste ikuspegi batzuk hartu behar ditugu, hain zuzen ere ukatutako ahotsei eta bizipenei entzuten dietenak, baztertutako historiak bistaratzen dituztenak eta etorkizun askatzaileak sortzen laguntzen dutenak. Bereziki interesgarriak iruditzen zaizkigu ikuspegi ekosoziala, ikuspegi dekoloniala eta ikuspegi feministak; izan ere, horiek ezinbestekoak dira gure ikertzeko modua desikasteko eta beste toki batzuetako beste ezagutza modu batzuetara hurbiltzeko. Ikerketa eta izan daitezkeen beste mundu batzuen eraikuntza lotzen dituzten ikuspegiak dira.

• Ikuspegi ekosoziala eta zaintzaren ikuspegia

Teoria kritikoek gaur egungo krisi ekologikoaren eta gizarte erreproduktzio-ko krisiaren erantzuletzat hartzen dituzte logika kapitalistak, estraktibistak, patriarkalak eta kolonialak. Izan ere, egoera honetara ekarri gaituen garapen-eredua natura menperatzean eta antropozentrismoan oinarritzen da.

Eredu horren ondorio latzei aurre egiteko, bizitzarekin eta ekosistemekin konprometitu behar gara. Bestelako ikerketa-prozesuak garatu behar ditugu; hain zuzen ere, ekodependentzian eta interde-

“ Ezagutza zientifikoa baliozko eredu bakartzat hartzen duen ideari aurre egitean, egia absolutuei buruzko susmoak pizten zaizkigu, eta ezagutzara hurbiltzeko modu anitzak aintzat hartzen ditugu ”

pendentzian hezten dutenak; jakintza herrikoiak, lurraldekoak eta antzinakoak aintzat hartzen dituztenak; herri indigenek eta “gorputz-lurralde” logikan mugitzen diren emakumeek lurraldea defendatzeko garatzen dituzten ekimenetan laguntzen dutenak; eta, azken finean, herrientzat –eta ez Kapitalarentzat– erabilgarria den ezagutza ekoiztera bideratzen direnak. Aurreko guztia lortzeko, ezinbestekoa da zaintzaren etika; hau da, bizitza sostengatzen duten interdependentziei arreta eskaintzea eta parekoen arteko elkarriketa garatzea, estraktibismo epistemikoari eta metaketa akademikoari aurre egiteko.

• Ikuspegi dekoloniala

Modernitatearen zibilizazio-proiektua arraza-irizpideetan oinarritutako dominazio-harremanetan oinarritzen da. Horiek kapitalismoaren berezkoak diren ekoizpen eta hazkunde mugagabeko logika esplotatzaileen bitartez azaltzen dira. Kolonialtasuna, bere aldetik, gizartearen, subjektuen eta ezagutzen arteko desparekotasunak legitimatzen dituen botere-eredua da. Desberdintasuna, izan ere, izateko, pentsatzeko eta jarduteko moduen berezko ezaugarria da, baina desberdinkeria bilakatzen da marjinazioa eta bazterketa sortzen dituenean, “bestea” arrotz ikusten duenean.

Errealitatea ezagutzen dugu, eta mundua imajinario kolektibo horien arabera eraikitzen dugu. Konpromisoa ikertzeko, beraz, beharrezkoa da zapalkuntzen naturalizazioa agerian uztea, etnozentrismoari aurre egitea, diskurtso arrazistak desestaltzea eta ezagutzaren ekoizpen prozesuan askotariko esperientziak, jakintzak eta subjektuak sartzea. Azken batean, beste ezagutza-zentzu batez ari gara, alderdi kognitiboan bakarrik zentratzen ez dena, eta, hortaz, gorputza, emozioak eta balioak integratzen dituen, errealitatea eraldatzeko.

• Ikuspegi feministak

Kapitalismoa sistema oso patriarkal batekin lotuta dago, hau da, gizonek emakumeekiko eta eredu heteronormatibo hegemonikoaren parte ez den edozein kolektiborekiko duten nagusitasunean; eta boterean oinarritzen den sistema batekin ere.

Feminismoek sistema hori betikotzen duten sozializazio prozesuak eta mekanismoak bistaratzen dituzte. Ezkutuan dagoen hori argitzen duen kontzientzia kritikoa dira, eta, hortaz, zientzia positibistaren androzentrismoari, neutraltasunari eta unibertsaltasunari aurre egiten dieten ezagutzak hurbiltzen dizkigute.



Gizarte eraldaketarekin konprometitutako ikerketa oro prozesu despatriarkalizatzailea izan behar da. Eta hori ez da lortzen aurretik dauzkagun eza-gutzei ikuspegi kritiko bat gehituz. Aitzitik, alde zurreko kontzeptzioak desegin behar ditugu, eta berreraikuntza lan bat egin, formulazio teoriko eta metodologiko berriak sortzeko (“pertsonala politikoa da”, zaintzaren etika, desberdintasuna eta identitate aniztasuna errespetatzea, ikuspegi intersektzionala, etab.).

Unibertsitatea aliatu gisa. Borroka askatzaileekiko konpromisoa zabaltzeko aukerak

Modernitatean, Unibertsitateak funtsezko eginkizuna izan zuen. Hain zuzen ere, instituzio gisa, Kapitalaren zerbitzurako eta kontrol sozialerako garapen-eredua sortzen eta erreproduzitzen lagundu zuen. Proiektu horrek gaur egun arte iraun du, eta ezagutza zientifikoa nagusi duen pentsamendu eta balio sistema bat osatzen du.

Ezagutza zientifikoaren esparru den paradigma positibista krisi egoeran dago XX. mendetik, eta, gaur egun, krisi epistemiko batean aurkitzen gara. Ikuspegi merkantilizatzailearen sustapen horren aurrean, oposizio mugimendu bat ere aurkitzen dugu. Horrek erresistentzia-ekintzak garatzen ditu, eta arrakalak zabaltzen ditu Unibertsitatean, elite boteretsuen interesak legitimatzen dituen mundu-ikuskerari hori desegonkortzeko.

Trantsizio ekosozialerako hezkuntza defendatzen dugunontzat, Unibertsitate inklusibo eta sozialki konprometitu bat eraikitzen laguntzea eskubide bat da, eta gure zeregina estimulatzeko du. Hain zuzen, komunitateekin eta haien borroka sozialekin sinergiak ezartzea proposatzen dugu, ezagutzaren zentzu politikoari buruz elkarrekin hausnartzeko eta, horren bitartez, diziplinak berritzeko eta Akademia eraldatzeko. Gizarte eta ingurumen justiziarren alde indarrak batzeari dagokionez, inor ez da soberan.

Articuladxs proiektuarekin izandako esperientziak erakusten du gizarte eraldatzeko subjektu kritikoak prestatu behar ditugula. Horretarako eza-gutza, bada, komunitatearekin eta lurraldeekin batera sortu behar dugu. Izan ere, komunitatearekiko elkarrikeria horrek ematen du Unibertsitatea eraldatzeko aukera, eta ezkutuan dauden erreali-

“komunitate akademiko gisa
“izateko”, “pentsatzeko” eta “ekiteko”
beste modu batzuk eskatzen
dituzten ezagutzak egiteko modu
alternatiboak”

tateak bistaratzeko eta aldaketarako alternatibak proposatzeko aliatu bilakatzen du.

Subjektuen, gizarte prozesuen eta lurraldeen arteko artikulazioari esker, elkarrikeria politikoak eremu akademikora eraman ahal izan ditugu. Hala ere, unibertsitate komunitateak ahots disidenteei entzun diezaien ahalbidetu du artikulazio horrek, hain zuzen, aurretik ere zeuden baina historikoki baztertuak izan diren horiei. Komunitateek, bada, zubi horiek baliatzen dituzte beren borroka posizionatzeko eta beren proiektu politikoa zabaltzeko, ikerketa mintegien eta taldeen bitartez. Beraz, sarean lan egitea ezinbestekoa da justizia ekosoziala lortzeko aukerak handitzeko, hain zuzen, botere-desorekak erakusten dituen testuinguru batean.

Arestian aipatutako planteamendu ekosozialek, dekolonialek, feministek edo sentipentsatzekoek aukera ematen dute ikertzeko *beste* modu batzuk esperimentatzeko, baina baita unibertsitatea eta gizarte artikulatzeko *beste* modu batzuk esploratzeko ere. Eraldatzeko helburua duten proposamenak dira. Izan ere, jakintza zientifikoaren zentzua aldatzea proposatzen dute, eta planeta gisa ditugun erronkei irtenbide bat bilatzera bideratzen dute Unibertsitatearen misioa. Azken batean, komunitate akademiko gisa “izateko”, “pentsatzeko” eta “ekiteko” beste modu batzuk eskatzen dituzten ezagutzak egiteko modu alternatiboak irudikatzen dituzte.

Erreferentzia bibliografikoak

Tuhiwai Smith, Linda (2016). *A descolonizar las metodologías. Investigación y pueblos indígenas*. LOM Ediciones.



Rosa Margarita Sánchez Pachecok utzitako argazkia.

Sistematizazioa ikaspen gisa. Jaki Herriaren Unibertsitatearen hezkuntza-eredua diseinatzeko prozesuaren sistematizazioa

Rosa Margarita Sánchez Pacheco. Unibertsitate Autonomo Metropolitanoa, Xochimilco Unitatea. Gizarte Zientzien arloko doktorea. Filosofia eta Letren Fakultateko Pedagogia Eskolako eta Politika eta Gizarte Zientzien Fakultateko Soziologia Ikasketen Zentroko irakaslea. Herri hezkuntzako, hizkuntza indigenen alfabetizazioko eta goi-mailako hezkuntza indigenako proiektuak diseinatzeko eta garatzeko lagundu du Mexikon. *Entramados del Cuidado* kolektiboko kidea. Brodatzailea, irakaslea, adiskidea, laguna, ahizpa, hegoaldeko emakumea.

Haria aldizkariaren ale honetan hobeto ulertu nahi dugu sistematizazioa ikaspen gisa, eta, horretarako, zurekin jarri gara harremanetan, Maider Elortegirekin dugun harremanaren bitartez. Hain zuzen, Maiderrek ere mundua eraldatu nahi du hezkuntzaren bitartez. Eskerrik asko, Maider! Zuk arlo horretan duzun esperientzia aberatsa ezagutzen du berak, baita askatasunean sinesten jarraitzeko aukera ematen diguten borroka horiekin guztiekin duzun konpromisoa ere. Beraz, esku artean dugun gai honi heltzeko, gehiago jakin nahiko genuke zuri buruz. Nondik abiatzen zara? Zein da zure adieraztokia?

Rosa Margarita Sánchez. Emakumetzat hartzen dut nire burua, eta irakaslea naiz lanbidez. Pro-bintziako hiri eta herri txikietan hazi nintzen, Mexikon, baina 18 urte bete nituenetik, Mexiko Hiria dut etxe eta bere biztanleak familia. Beraz nire bizitzaren zatirik handiena hiriguneetan eman dut. Ikasketa profesionalak ditut, eta eremu pedagogikoen eraikuntza interesatzen zait, baita horien sareei eta konplexutasunei buruzko hausnarketa ere, ikuspegi soziologiko zein pedagogiko batetik. Nire bihotza eta eginkizuna hezkuntzaren soziologiaren eta hegoaldeko pedagogien artean mugitzen dira. Ahizpa, adiskidea, laguna, mais-

“kolonizazioaren lehen mendeetan, Jaki Herriak bere lurraldearen mugetan ezarri ziren misiolariekin negoziatzea lortu zuen”

tra, lankidea eta brodatzailea naiz, hainbat indarkeria jasaten dituen lurralde batean. Horretan, izan ere, emakume izatea askotariko moduetan bizitzen da, eta askotariko desparekotasun mailekin, baina beti indarkeria patriarkalaren konplexutasunaren eraginpean. Gure kaleetan, eskoletan, lurraldeetan, landetan, autobusean, metroan edo azokan hainbat modutan adierazten diren indarkeriak dira, baina horietatik abiatuta erresistentziak eta proposamen askatzaile sendoak ere eraikitzen dira.

Beste alde batetik, esku artean dugu gaiari lotuta, emakume gaztea hiritarra, ez-indigena, unibertsitarioa eta doktorea izateak ere erresistentziak eta aukerak ekarri dizkit, hezkuntza esperientzien sistematizazioari dagokionez.

Hezkuntza aholkulari ere aritu zara Jaki Herriarekin egindako sistematizazio prozesu batean. Jaki Herria Mexikoko Sonora Estatuaren hegoaldean kokatzen da, eta, Atlantikoaren alde honetan bizigaren askok ez ditugu herri horren esperientziak eta borrokak ezagutzen. Azalduko diguzu herri horren historia eta zer testuingurutan garatu duten zuk parte hartutako sistematizazio hori?

Rosa Margarita Sánchez. Mexikon, Estatistika eta Geografia Institutu Nazionalaren (INEGI) 2020ko datuen arabera, hiru urtetik gorako 23,3 milioi lagunek indigenatzat dute beren burua, hau da, adin-tarte horretako biztanle guztien % 19,4k. Aldi berean, herrialdeko biztanleen % 6,1ek hezkuntza indigenaren bat hitz egiten du, hau da, 7.364.645 lagunek herrialde osoan (INEGI, 2022).

Beren burua indigenatzat duten lagun gehienak herriaren erdialdeko, hegoaldeko eta hego-ekialdeko Estatuetan aurkitzen dira. Hala ere, iparraldean ere herri indigenak daude, eta kolonizazioaren aurrean eutsi dute mendeetan zehar. Herri horien artean ditugu Jakiak edo Joemeak, hain zuzen ere, Sonorako Estatuan. Sonora ipa-

rraldeko muga dagoen Estatu bat da. Bertan, indigenak Estatuko biztanleen % 4,3 dira. Zentzu horretan, biztanleen % 2,2k hezkuntza indigenaren bat hitz egiten dutela aitortzen dute. Ehuneko horretatik, % 42,3k maio hezkuntza hitz egiten dute, eta % 29k jaki hezkuntza. Jaki Herria, Estatuan diren hiztun kopurua kontuan hartuta, Sonorako Estatuko bigarren talde indigenarik handiena da (Consejo Estatal de Población del Estado de Sonora, 2024).

Jakien tribua zortzi herrik osatzen dute, eta zortziak Sonorako Estatuari dagokion lurraldean kokatzen dira. Hala, jakiek jasandako kolonizazio-prozesuak bere berezitasunak ditu. Raquel Padillaren¹ eta Daniel Kenten² lanak irakurtzea gomendatzen dizuet. Lehenengoa Jaki Herriaren borrokekin konprometitutako etnologoa da, eta bigarrena Mexikoko iparraldeko kolonizazio prozesuak aztertu dituen historialaria. Haien esanetan, kolonizazioaren lehen mendeetan, Jaki Herriak bere lurraldearen mugetan ezarri ziren misiolariekin negoziatzea lortu zuen. Horri esker, bada, nolabaiteko autonomia politikoa eta beren bizitzaren behin betiko autogestioa mantendu ahal izan zuten. Hala ere, Mexikoko Estatu-nazioaren eraketak ordena politikoan eragindako eraldaketaren ondorioz, XIX. mendean, gero eta jazarpen handiagoa jasan zuten.

1896. urtea “Jakiaren Kanpaina” delakoaren lehen urtean izan zen. Kanpaina horretan bahiketa eta deportazio masiboak egin zituzten. Pertsona horiek herrialdearen hegoaldera bidali zituzten, Tehuantepec-eko Istmoa, San Cristobal de las Casas hiriko eta Yucataneko penintsulako etxaldeen lan behartuak egitera. Jazarpen hori nekazaritzako enpresariak bultzatu zuten, Porfirio Díaz presidentearen gobernuaren babesarekin. Haien helburu nagusia, bada, jakiei lurraldeak kentzea eta nekazaritza-ekoizpen pribatuko eremu bilakatzeko zen. 1937an, Lázaro Cárdenas presidentearen gobernuan zehar, lur horietako batzuk itzuli zituzten Jaki Herriari. Baina 1994an, Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Ituna (gaztelaniaz, TLCAN)

1 Padilla, Raquel (2018). *Los partes fragmentados. Narrativas de la guerra y la deportación*, Secretaría de Cultura-INAH, Mexiko.

2 Kent, Daniel (2023). *Heridas en la tierra. Colonización, racismo y agroindustria en México*, UNAM, Mexiko.

“Jaki Herriaren Justizia Planaren ardatzetako bat hezkuntzari dagokio, eta haren barruan, Jaki Herriaren Unibertsitatea sortzea aurreikusten da”

indarrean sartzearekin batera, jakiei “eta, oro har, Mexikoko herri guztiei” lurraldeak kentzeko prozesuak berpiztu zituzten.

Gobernu aldaketarekin, 2019ko urriaren 26an, Mexikoko presidenteak Jaki Herriaren Justizia Plana sortzeko konpromisoa sinatu zuen. Plan hori, hain zuzen, zortzi herri jakietako agintari tradizionalekin elkarriketan sortuko omen zuten. López Obrador presidentearen administrazioan herri indigenei zuzendutako 17 justizia-plan sustatu zituzten, horietatik lau Sonorako Estatuan dauden herri indigena hauentzat: Jaki, Seri-Komkak, Guajiro-Makuraue eta Joreme Maio³. Jaki Herriaren Justizia Plana administrazio horren planik garrantzitsuetako bat omen zen, edo hala aurkeztu zuten behintzat.

Jaki Herriaren Justizia Planaren ardatzetako bat hezkuntzari dagokio, eta haren barruan, Jaki Herriaren Unibertsitatea sortzea aurreikusten da. Nik Jaki Herriko agintari tradizionalek eta hezkuntza arloko agintari federaletan eta estatalek sortutako hezkuntza-talde teknikoarekin lan egiten hasi nintzen⁴. 2021etik 2023ra bitartean, talde teknikoko irakasleekin lan egin nuen Jaki Herriaren Unibertsitateko (UPY, gaztelaniazko siglen arabera) Hezkuntza lizentziaturaren Ikasketa Plana osatzeko. Ikasketa plana egiteko fase hori amaitzear zegoenean, hezkuntza-proiektua egite-

ko prozesuaren sistematizazioa egiteko beharra identifikatu genuen.

Behar hura, bada, 2023an Mexikon sortzen ari ziren kulturarteko beste unibertsitate batzuetako ordezkariekin izandako batzarretan sortu zen. Topaketa horietan, Jaki Herriaren Unibertsitateko Kulturarteko sistema modularra sortzeko prozesuari buruz hitz egin ahal izan nuen talde tekniko-kideekin. Aipatu beharra dago UPYren hezkuntza-eredua Xochimilcoko Unibertsitate Autonomo Metropolitanoaren hezkuntza-ereduan oinarrituta diseinatu zela, hura ere sistema modularra baita. Sistema modularrak, hezkuntza-eredu gisa, ikuspegi pedagogiko konstruktibista eta kolaboratiboa du, gizarte eta lurralde ikuspegi batetik. Hezkuntza ikuspegi hori ahaltsua da gizarte eraldaketako apustu integral batetik lan egiteko, baina, aldi berean, erronkak ditu, bai diseinuari bai aplikazioari dagokienez.

UPYren kulturarteko sistema modularra egiteko prozesua partekatze beharra identifikatu genuen, beste batzuekin eta proiektuan sartzen ziren horiekin. Horretarako, sistematizazio-prozesu bat egitea planteatu zen, eta curriculum diseinatze-ko esperientzia sistematizatzeko lanarekin hasi ginen. Sistematizazioa, bada, hezkuntza-proiektua bera sortzeko prozesuan parte hartu zuten horiek adierazitako beharretik sortu zen, UPYk bere ateak zabaldu aurretik ere. UPYko lehen ikasleek 2024. urte amaieran abiatu zituzten beren ikasketak.

Garrantzitsua da hori kontuan hartzea; izan ere, ikasketak abian dituen hezkuntza esperientzia batean sortzen diren hausnarketak desberdinak dira. Azaltzen ari naizen hezkuntza esperientzia, bada, hezkuntza-ereduaren eta haren ikasketa-planen diseinuan eta eraikuntzan zentratzen da. Eta berezitasun horri esker konturatzen gara hezkuntza esperientziak, hain zuzen, horiek irudikatzen has-teko unean bertan abiatzen direla.

Zeintzuk dira, zure ustez, prozesu horren ekarpen nagusiak? Ikusi dugunez, emaitza garrantzitsuak egon dira Jaki Herriak bere lurraldeari buruz egindako eskakizunei dagokienez, baina aldi berean konplexua izango zen eta zailtasunak egongo ziren. Lorpenez gain, kontatuko diguzu zeintzuk izan diren esperientzian zehar sortutako arazoak eta kontraesanak? Hala, sistematiza-

3 Instituto Nacional de los Pueblos Indígenas (INPI). *Planes de Justicia*, <https://www.inpi.gob.mx/planes-de-justicia>

4 Jaki Herriaren Unibertsitatearen (UPY) hezkuntza-eredua eta lau lizentziaturako ikasketa-planak egiteko, Jaki Herria osatzen duten zortzi herrietako agintari tradizionalek bana edo bina ordezkari izendatu zituzten, diseinuaz arduratuko zen talde teknikoa osatzeko. Teknikari jakietako gehienak irakasleak izan ziren. Talde horretan sartu ginen herrialdeko goi-mailako hezkuntzako erakundeetako zenbait akademiko eta maila federal eta estataleko hezkuntza instituzioetako zenbait ordezkari ere.



Rosa Margarita Sánchez Pachecok utzitako argazkia.

zioa ideal gisa ulertu beharrean, ikaspen prozesu gisa ulertu ahal izango dugu agian.

Rosa Margarita Sánchez. Nik urteak eman ditugu jakiekin lan egiten, hain zuzen ere, talde teknikoarekin, eta baneukan UPY diseinatzeko lehen urteetan egindakoari buruzko informazio asko. Hala ere, informazio hura diseinuan aurrera egiteko zen, ez sistematizaziorako zehazki. Sistematizazio lana proposatu zidatenean, ohar, agiri, txosten, aurrerapen eta lan-egunkari horietara itzuli nintzen beste begirada batekin.

Idealki, esperientzien sistematizazioa oso modu organikoan egiten da hezkuntza eta pedagogia komunitateekin. Baina, nire esperientziaren arabera, sistematizazioa beti izaten da askotarikoa, eta denbora eta harreman desberdinak izaten ditu. Kasu honetan, UPYren proiektuaren partaideek lanez gainezka zeuden, unibertsitatea laster irekiko baitzuten. Ni Mexiko Hirian bizi naiz, eta iparraldera bidaiatzea zaila egiten zait. Hortaz, sistematizazioan egindako lanaren zati handi bat telefono eta bideo deien bitartez egin genuen. Ni Sonorara joaten nintzen ikasketa-planarekin lotutako kontu

zehatzez arduratzeko, baina sistematizazio lana konplexuagoa zen, zegoen premiagatik.

Nire inpresioaren arabera, sistematizazioa ez zen premiazkoa UPYko kideen egunerokoan, unibertsitate bizitzaren hurbiltasunak beren energia guztiak hartzen baitzituen. Hala ere, nik dokumentuan ordenatzen eta lekukotzak jasotzen jarraitu nuen (distantzia handia bazen ere). Urte horretako uztailan, Unibertsitateara itzuli nintzen sistematizazioaren lehen dokumentu bat aurkezteko. Interesgarria izan zen dokumentuak zer nolako harrera izan zuen ikustea, bai UPYn sartu berri ziren irakasleen artean, bai hasieratik zeuden horien artean ere. Nire ustez, nik sistematizazio dokumentuan idatzitakoari buruz hitz egitea falta izan zitzaigun. Halaber, Unibertsitatearen sorreran parte hartu duten horien hausnarketak eta

“ nire esperientziaren arabera, sistematizazioa beti izaten da askotarikoa, eta denbora eta harreman desberdinak izaten ditu ”

“esperientzia sistematizatzeko premia UPYren hezkuntza-eredua eta ikasketa-planak eraikitzeke prozesua beste talde batzuekin partekatzeke beharretik sortu zen, hain zuzen ere, Mexikon kulturarteko unibertsitateak sustatzen ari diren taldeekin”

ahotsak sartu beharra dago. Orain, lekukotza horiek biltzeko momentuan nago. Lan eta lankidetzako harremana askotarikoa da: batzuetan oso organikoa, beste batzuetan urruntasuna dago. UPYko bizitzaren eguneroko beharren ondorioz zaila egiten da elkartzeko eta pentsatzeko eremuak izatea.

Ekarpenei dagokienez, esperientzia honetan lau identifikatzen ditut: esperientzia beste batzuekin partekatzea; memoria; prozesuari beste leku batek begiratzeko aukera; eta proiektuak eta horietan parte hartzen duten pertsonak nola eraldatzen diren aintzat hartzea.

Partekatzea. Lehen esan dudan bezala, esperientzia sistematizatzeko premia UPYren hezkuntza-eredua eta ikasketa-planak eraikitzeke prozesua beste talde batzuekin partekatzeke beharretik sortu zen, hain zuzen ere, Mexikon kulturarteko unibertsitateak sustatzen ari diren taldeekin. Egingakoa beste hezkuntza esperientzia batzuekin partekatzeak zerbait baliotsua du. Hala ere, Unibertsitateak aurrera egin ahala, eta hezkuntza diseinua egunerokoan gauzatzean, garrantzitsua izan da sistematizazioa UPYko irakasleekin ere partekatzea. Sistematizazioa partekatzeke saioetan, oso interesgarria izan da jakitea nola ikusten duten Unibertsitatean eskolak ematen dituzten baina eraikuntza prozesuan izan ez ziren irakasleek.

Memoria. Partekatze hori beste elementu batekin ere lotuta dago, memoriarekin, alegia. Memoria-ren gaia gero eta konplexuago bilakatu da denborekin. Izan ere, hasieran, garrantzitsua zirudien Unibertsitatea sortzeko prozesuaren memoria gordetzea: nortzuk hartu zuten parte, nola egin zuten, zer zailtasun aurkitu zituzten... Sistematizazioak bere bidea baloratzeko eta berrikusteko aukera

ematen zion talde teknikoari. Baina, denbora joan ahala, eta lekukotzak jaso ditudan heinean, UPYk Justizia Planarena baino bide luzeagoa izan duela identifikatu dut. Jaki Herriaren Unibertsitatea sortzeko borroka 1980ko hamarkadan hasi zen, eta aurrekariak ere izan zituen, baina horiek ez ziren XX. mendera arte mamitu. Sistematizazioa, memoria kolektibo gisa, iraganean errotzen da. Iragan hori bizirik dago eta gaur egungo esperientzietan hartzen du zentzua. Aldi berean, esperientziek zentzu berriak hartzen dituzte beren erroak ezagutzen dituzten heinean.

Prozesuari begiratzea, zailtasunetatik ikastea. Esperientzien sistematizazioak, eta, zehazki, UPYren hezkuntza-ereduaren eraikuntzaren sistematizazioak, prozesuari nolabaiteko distantziarekin begiratzeko aukera eman dute, izandako zailtasunak eta egiteko dauden kontuak identifikatzeko. Bidean tentsio politikoak egon dira Estatuko agintarien eta agintari tradizionalen artean, eta horrek proiektua geldiarazi izan du zenbait unetan. Beste alde batetik, hezkuntza-arloko zeregin asko jaso ziren dokumentuetan, baina orain arte ez zaie biderik eman. Horixe da, esate baterako, irakasleen prestakuntza-prozesu batzuen eta ikasleei bidalguntza emateko bide batzuen kasua. Beste zentzu batean, sistematizazioa UPYko kide berriekekin partekatzean, diseinuan aurreikusi ez genituen beste kontu batzuk ere identifikatu ditugu, hala nola denborei dagozkien zailtasunak eta irakasleen kontratazioak.

Pertsonen eta esperientzien eraldaketa beraiek eratzen dituzten prozesuetan. Sistematizazioaren elementu oso baliotsu eta ez oso landu bat da, nire ustez, hezkuntza esperientzia horiek bultzatzen dituzten lagunen eraldaketari buruz pentsatzeko eremu bat sortzeko aukera. Azken urteotan, ikasketa-planak sortzeko talde teknikoetan parte hartu zuten irakasleen ibilbideari jarraitu diot. Irakasleetako asko emakume gazteak dira, oinarritzko hezkuntzako maistrak, izan ere. Bidean, emakume horiek (eta gizonek ere, baina orain emakumeei buruz hitz egin nahi dut) hezkuntzan pentsatzeko eta beren praxi pedagogikoa garatzeko modua eraldatu dute. Ikuspegi horrek emakume horien esperientzia artikulatzen du; hain zuzen, ikasteko helburuz beren komunitateak utzi zituzten eta gaur goi-mailako eta oinarritzko hezkuntzako irakasle diren emakume indigena gisa. Toki horrek, posizio erroto horrek, bada, hezkuntza prozesuak itxura-

“Nire ustez, nire laguntza-lana eta geroago sistematizazio-lana (hori ere laguntza modu bat da) entzutea, doitzea, moldatzea, desmoldatzea eta birmoldatzea izan da”

tzen ditu eta eraldaketa prozesuak aurreikusten ditu. Handik eraldatu dute hezkuntza-proiektua ere, eta hori oso baliotsua da. Beraz, UPY, proiektu gisa eta hezkuntza esperientzia gisa, mugitu egin da, eta beren eguneroko lanaren bitartez hura gauzatzen duten lagunak ere mugitu ditu. Sistematizazioak horren berri emateko aukera eman digu, baina asko dago egiteko, oraindik ere.

Sistematizazioa entzutea eta itzultzea da, eta, hortaz, harremanak, loturak eta konplizitateak sortzen ditu beste subjektu batzuekin eta haien istorioekin, hausnarketekin, ametsekin eta beldurrekin. Zure esperientziaren arabera, nola ehuntzen dira harreman horiek besteekin eta komunitatearekin? Zenbateraino eraldatzen ditu sistematizazioak prozesu horietan parte hartzen duten lagunak? Zer garrantzia du hausnarketak ezagutza kolektiboa sortzean?

Rosa Margarita Sánchez. Harreman horiek nola sortzen diren, egia esateko, ez daukat erantzun argirik. Jakien lurraldera heldu nintzenean, emakume gazte eta hiritar bezala heldu nintzen, “hezkuntzan aditu” bezala, eta distantzia izugarria sentitzen nuen. Behin baino gehiagotan nabarmendu egin zidaten lurraldeko, hizkuntzako eta, batzuetan, generoko distantzia hori. Lehen egunak gogorak izan ziren; ni “probatzen” ari zirela sentitzen nuen, batez ere taldeko gizon nagusienak, ez jakiak bakarrik, baizik eta hezkuntzako instituzioetako ordezkariak ere. Jakiek kanpotarren aurrean duten mesfidantza historikoki ondo oinarrituta dago.

Baina denbora joan ahala, egoera eraldatu zen. Nire ustez, nire laguntza-lana eta geroago sistematizazio-lana (hori ere laguntza modu bat da) entzutea, doitzea, moldatzea, desmoldatzea eta birmoldatzea izan da. Denborarekin bestean konfiantza izaten eta elkarrekin lan egiten ikasi dugu.

Niretzat oso garrantzitsua izan zen herriengandiko eta herrientzako Unibertsitatearen amets hori partekatzea. Posizionamendu etiko-politiko-pedagogiko horretatik, prozesuarekin konprometitu nintzen eta, toki horretatik, elkarrekin ehuntzeko aukera egon zen.

Aldi berean, konplizitate harreman bat ere ezarri dut talde teknikoko zenbait irakaslerekin. Horietako batzuek gaur egun karguak dituzte UPYren administrazio akademikoan. Niretzat oso garrantzitsua da haiek irakatsi didatena, beren bizitzak, beren ibilbideak, beren apustuak, zailtasunak eta ametsak. Bestetik, lagun horiek ni hartzen naute Sonorara joaten naizenean, eta distantzian ere. Niri laguntzeko modu asko dituzte, beren eginkizuna eta hausnarketak nirekin partekatzeko modu asko. Harreman hori oso baliotsua da niretzat, eta konpromisoa eta poza pizten dizkit.

Illo horretan, niretzat erabat funtsezkoa izan da Unibertsitatea –kasu honetan, Unibertsitate indigena– amesten, proiektatzen eta egiten duten emakumeen ikuspegia. UPYko hezkuntza lizentziaturako sei irakasleetatik lau emakume jakiek dira, jakieraz hitz egiten dute, eta jakien lurraldean bizi dira. Ikasketa planaren eraikuntza-prozesuan, sistematizazio lanaren lehen uneetan, ez nien behar bezalako arreta eskaini emakume horien ibilbide pertsonalei. Hala ere, denborarekin eta haiekin hitz egiten dudana bakoitzean, UPYren zentzuari buruzko istorioak eta hausnarketak partekatzen dizkirate, eta haien eginkizun politiko-pedagogikoaren ahalmena ulertzen dut, baita emakume eta indigena izateagatik aurkitzen dituzten zailtasunak ere. UPYko irakasleekin lan egiteak eraldatu egin ditu nire irakaskuntza-praktika eta hezkuntza eremuetan besteekin ditudan harremanak.

Hausnarketari dagokionez, esparru akademikotik nolabaiteko distantzia emozionala ematen diogu hitz horri, batzuetan intelektuala ere. Baina, egunerokoan, modu ez-antolatuetan eta ez-formaletan agertu ohi da. Jakina, eguneroko solasaldietan agertzen den hori modu ordenatuan jasotzeko ariketa kontzientea egin behar dugu. Horretarako, entzutea zorroztu behar dugu, eta galderatik ehundu. Nire ustez, entzutean eta galderan bizitzea funtsezkoa izan da prozesuan zehar.



Rosa Margarita Sánchez Pachecok utzitako argazkia.

Zer nolako eginkizuna du sistematizazioak zure egitekoan irakasle kritiko gisa? Zenbateraino sustatzen ditu aukera askatzaileak hezkuntza-eremuetatik errealitatea eraldatzeko?

Rosa Margarita Sánchez. Nire ustez, esperientzien sistematizazioak esperientziatik (gure burua) pentsatzeko toki-denbora bat eskaintzen du. Hala-ber, gure erroekin eta arbasoekin birkonektatzeko aukera ere ematen digu, oso urrunetik datozen borrokekin ere. Horiek, nolabait (modu kontra-esankorrean ere), hezkuntza-prozesu espezifiko-etan gauzatzen dira. Aldi berean, esperientzien sistematizazioak norabidea eman diezaguke zenbait unetan, bidea berdina ez bada ere eta gu berdinak ez bagara ere. Etorkizunari begirada berri batekin begiratzeko modu bat da, memoriaren begiradarekin, alegia.

Bestalde, niretzat, entzutea eta galdera gero eta garrantzitsuagoak dira, besteen hitza jasotzeko leku gisa. Denborarekin, hori ikasi dut irakasle bezala, eta, handik, hezkuntza esperientziak gartzten dituzten kolektiboekin lan egiteko prozesuak

ezarri ahal izan ditut. Jakien izaera eta munduan egoteko duten modua aditzea funtsezkoa izan da esperientzia jakin hori sistematizatzeko, baina baita Latinoamerikako unibertsitate publikoen, indigenen, kulturartekoen eta konbentzionalen tokiari eta zentzuari buruz pentsatzeko ere.

Nire ustez, sistematizazioa, baterako hausnarketa kolaboratiboko prozesu bat den heinean, entzuteko, hausnartzeko eta elkarrekin lan egiteko aukerak aurreikusteko modu bat da. Halaber, gure zeregina birpentsatzeko eta esanahi berri bat emateko aukera ematen du. Bidean atzera egitea, ibilitako bideak ezagutzea eta hezkuntza esperientzian zehar nola eraldatu garen aintzat hartzea funtsezkoa da, hain zuzen, nor garen eta nolakoak izan nahi dugun bihotzez gogoratzeko. Aldi berean, gatazka eragiten digu, galderak bizitzeko aukera ematen digu. Gauzak ontzat ematea behin betikoz ez da bide ona. Deserosotasuna bizi behar dugu, galdetuz, entzunez. Eta, hortik, egunero ehundu, kontuz, pazientziaz. Izan ere, garai konplikatu da, eta batu dezakegun samurtasun eta indar guztia behar dugu.

“Sistematizazioa ez da prozesu ez lineala eta ez itxia. Alde batetik, ez da lineala, prozesuan hainbat norabidetan eta dimentsiotan mugitzen garelako”

Amaitzeko, bi ideia adierazi nahi ditut:

Sistematizazioa ez da prozesu ez lineala eta ez itxia. Alde batetik, ez da lineala, prozesuan hainbat norabidetan eta dimentsiotan mugitzen garelako. Hainbat geruzatan lan egiten dugu aldi berean, ordenatuz, entzunez, eta birpentsatuz. Bestetik, ez da behin betiko ixten dugun zerbait. Batzuetan eten bat egiten badugu ere, bideak espiral forma du. Sistematizazioaren lehen dokumentu hori entregatu nuenean eta hari buruzko hausnarketak jaso nituenean, konturatu nintzen asko zegoela oraindik sartzeko; ez dokumentua handitzeko, baizik eta hausnarketarako dimentsioak zabaltzeko, memorian gordetzeko eta lan ildo berriak irekitzeko.

Hortaz, sistematizazioa ez da hausnarketa eta ikasketa prozesu gisa adierazten hura egitean bakarrik, baizik eta hura partekatzeko uneetan ere. Sistematizazio ariketa partekatzeko unean gauzak agertzen dira, gauzak pentsatzen ditugu, gure burua topatzen eta birtopatzen dugu; nor izan ginen, nor izan ziren, nor nahi dugun izan.

Erreferentzia bibliografikoak

Consejo Estatal de Población de Sonora (2024). *Data*, 2. Mexiko.

Instituto Nacional de Estadística y Geografía (INEGI) (2022). 430/22 prentsa-adierazpena, Mexiko.

Instituto Nacional de los Pueblos Indígenas (INPI). *Planes de Justicia*, <https://www.inpi.gob.mx/planes-de-justicia>

Jara, Óscar (2014). *La sistematización de experiencias. Práctica y Teoría para otros mundos posibles*. Lima: CEAAL.

Kent, Daniel (2023). *Heridas en la tierra. Colonización, racismo y agroindustria en México*. Mexiko: UNAM.

Padilla, Raquel (2018). *Los partes fragmentados. Narrativas de la guerra y la deportación*, Mexiko: Secretaría de Cultura-INAH.



Nortzuk gara

Hemen aurkituko gaituzue

• Auzoko istorio bat

• www.historiasdebarrio.com

Sin prisa pero
con alma

Auzoko istorio bat

Zergatik eta nondik idatzi “Historias de Barrio 2.0.” Gizarteratzerako Herritarren Partaidetzarako Planari buruz?

Hegoa Institutua duela hilabete gutxi batzuk eza-gutu genuen, hain zuzen ere, 2026an argitaratuko den proiektu interesgarri batean parte hartzeko aukerari esker. Lehen batzar horretan, Gemarekin eta Amaiarekin elkartu ginen, eta helburua, jakina “auzoko istorioak” kontatzea zen. Gure aldetik, berehala sortu zen konexioa. Diskurtsoaren alderdi guztiekin bat gentozen. Elkarriketa, izan ere, erraz sortzen zen, eta Hegoaren eta San José Obrero auzoan dugun prozesu komunitarioaren helburuen artean erabateko lotura zegoen. Gero, Amaiak *Hariak* aldizkarirako testu bat idaztea proposatu zигun, San José Obrero auzoan egiten dugun lanean egindako ikaspen garrantzitsuetako batzuk azaltzeko. Horrek, ordea, sentimendu kontraerriak piztu zizkigun.

Gizarte eta hezkuntza ekintza komunitarioa ulertzeko dugun moduagatik, ez genuen testu oso formala egin nahi, hau da, aipamen eta erreferentzia teoriko ugariz edo urte hauetan “lortutako emaitzen” berri ematen duten datuez betea. Horrelako dokumentuak, jakingo duzuen bezala, beharrezkoak dira; baina, guretzat “Historias de Barrio” beste gauza bat da. Horregatik hitz egiten dizugu zuzenean zuri (edo zuei, nahiago izatekotan). Nondik gatozen eta zer egiten ari garen jakin dezazun nahi dugu. Ezin dizugu esan nora goazen; izan ere, ekintza komunitarioa prozesu bat da, eta, hortaz, bukatugabea. Irekia da, aldakorra eta dinamikoa. Agian, auzoan jarraituko dugula da gauza ziur bakarra da, hori, gure ustez, garrantzitsua eta balio-tsua baita.

Gehiago esango dizuegu. Amaiaren enkargu horrekin pentsatu genuen testua idaztea aukera ona zela Murtziako *Alcantarillako Udaleko* Gizarte, Familia eta Emakumearen Ongizatea zinegotzigoarekin egiten dugun lanaren berri emateko. Hain zuzen, Gizarte Langintza Unitateko Zonaldeko 1. Taldearen lanaz ari gara. Lan horren esparrua lehen mailako arretako gizarte zerbitzuek ematen duten arretaren alderdi ahaztu bat da, ekintza komunitarioa, alegia (ez “langintza komunitarioa”, hori “beste gauza bat” da). Beste alde batetik, iruditutako zitzaigun ikuspegi horrek berriz ematen ziola protagonismoa ekintza komunitarioaren alderdi bakar bati, eta prozesu komunitarioaren benetako protagonistak alde batera uzten zituela. Protagonista horiek dira, jakina, San José Obrero auzoko herritarrak.

Hortaz, testuak harremanetan zentratutako beste errealitate bat erakutsi behar zuen, auzoan “logika komunitario” baten bitartez lan egitea zer den azaltzeko. Izan ere, San José Obrero auzoa, oso auzo estigmatizatua da, eta desberdinkeria-egoera kronikoan dago. Jende askok ulertzen ez duen auzoa da. Horretan, auzotarrak “bizibidea ateratzen” saiatzen dira, besterik ez, ahal duten bezala, dakitene bezala edo “uzten dieten” bezala. Eta ideia horiekin, gure lanari buruz hausnartu nahi dugu, zuei gure ekintza planteamenduaren berri eman ahal izateko. Ez da profesional gutxi batzuen hausnarketa, aspalditik lan egiten duen sare komunitarioarena baizik. Sare horrek hizkuntza komuna sortu du, eta ekintza komunitarioko prozesuan parte hartzen duten eragile guztiek helburu partekatuak dituzte, ekimen “partzipatiboa” baita.

Guretzat (Ana eta Jesús), San José Obrero gure bizitzaren parte bilakatu da. “Auzokoak” gara



Alcantarillako Udalak utzitako argazkia.

esaten dugu, San José Obreroko “auzotar bidaia-riak”, eta komunitate baten parte. Denbora luzea ematen dugu auzoko kaleetan, plazan, eta batez ere auzoko Zentro Integralean. Egunero “gure auzokideekin” hitz egiten dugu, haien pozei eta minei buruz, haien arazoei eta arrakastei buruz, eta “eguneroko” edozein gauzari buruz ere. Mario Luis Small (2017) soziologoaren esanetan, izan behar dugu “norekin hitz egin”. Izan ere, nola-bait, gure lana hitz egiteko moduko harremanak sortzea eta auzo-harreman komunitarioak ehuntzea da. Elkarriketa horietan guztietan, urteetan zehar, ikusi ahal izan dugu gure auzoko gizonen egoera ez dela erraza. Ikuspegi tradizional baten arabera eraikitzen dute beren maskulinitatea, eta, ondorioz, “ezin dute negarrik egin, hala behar dutenean ere”. Gure ustez, horretan eragiteko hausnarketa-eremuak sortu beharra dago. Hori, gainera, mesedegarria izango litzateke auzoko emakumeentzat ere, haiek ere hazkunde pertsonaleko eta “barrua husteko” eremuak behar baitituzte –gure auzoko emakume ijito batek adierazi zigun bezala–, eta batez ere ahalduentzeko eremuak. Badakigu zaila dela auzoan emakume izatea (are gehiago ijitoa bazara). Sandra Cisnerosek

“Un último poema para Richard” olerkian dioen bezala, agian “bataila handietarako izarrak egon beharko lirateke”.

Halaber, gure auzokide txikienak hezkuntza-sisteman egindako ibilbidean lagundu ditugu. Hori, bada, gai garrantzitsu bat da kale kantoietan bizi diren gazteentzat. Auzoko batek esan zuen bere ametsa dela jendea horman berramata ez ikustea, horrek esan nahiko baitu enplegua dutela. Hura ere amets handia da, “izarrak” behar dituen eta lan handia eskatzen duen horietako bat. Hala da nagusien partaidetza komunitarioaren gaia ere (batez ere, auzoko “amamena”). Gainera, ez ditugu ahaztuko preso egon eta gero auzora itzuli diren lagunak. Auzoa, orain, ez da duela hainbat urte utzitakoaren berdina; ez dituzte beren betiko loturak eta egoera oso desberdina da... eta beste hainbat gauza. Agian, imajina ahal izango duzue zuen auzoan pentsatzen baduzue. Badakizue zer? Urte hauetan zerbait ikasi dugu: ekintza komunitarioa baliagarria da auzoko jendeari esateko beren bizitza me-rezi duela, garrantzitsua dela; beren existentziak zentzua duela eta bigarren aukerak egoten direla.

Ruth Beharren hitzetan (1996), “begirale zaurgarriak” gara. Gure zaurgarritasuna, Anarena eta Jesúsena, testuinguruaren arabera da. Ezin diogu auzoan gertatzen denari nolabaiteko emoziorik gabe begiratu, eta ikusten dugu horrek pertsonen bizitzan gertatzen denari begiratzerak garmatza; batzuetan penaz edo amorruez, eta beste batzuetan maitasunez eta begikotasunez. Hau da, axola digute lan egiten dugun auzoko lagunen oinazeak eta desparekotasunak. Beste modu batean egingo bagenu –hain zuzen, batzuetan jendeak egozten digun “neutraltasun” horrekin, posizionatu gabe eta gure alderdi “teknikotik” aldendu gabe–, ez genituzke “auzoko istorioak” kontatuko. Beste zerbait egingo genuke, ez hobe edo txarra goa, baina desberdina, eta, agian, ez genituzkeen urte hauetan egindako harremanak eta sinergiak egingo.

Horregatik, orain, hartu arnasa eta murgildu gurekin San José Obrero auzo zoragarriko kaleetan. Auzoa Murtzia hiriarren mendebaldean dago, Murtziako ortua hasten den gunean. Herriaren izena, hain zuzen ere, Alcantarilla da, sorginen herria, baina hori “beste istorio bat” da...

1. Aurrekariak

Ezer baino lehen, azaldu nahi dizugu nola eraiki dugun prozesu hori denboran zehar. Horretarako, gure ekintza komunitarioa finantzatu duten erakundeei eta programei buruz hitz egin behar dizugu. Nolanahi ere, jakin behar duzue San José Obreroko prozesu komunitarioa “auzotik paseatuz” abiatu zela. 2018. urtean, informazioa biltzeko teknika bat erabiltzen hasi ginen, hain zuzen ere, “transektuak edo deriba komunitarioak”. Teknika hura lurraldea hobeto ezagutzeko eta auzora hurbiltzeko beste modu bat proposatzeko erabili nahi genuen. Auzotarrekin eta auzoan lan egiten duten (edo lan egin zuten) beste lagun batzuekin egindako ibilaldi horien ostean, batzarrak egiten hasi ginen San José Obrerori buruzko hizkuntza eta ikuspegi komunak ezartzen hasteko. Jakina, eremu horietan komunitate osoak parte hartzen zuen, berdintasun baldintzetan.

Batzar horietan, lehen finantziazio aukera baten berri izan genuen, baina orain aurrera egingo dugu. Gure prozesu komunitarioa gizarteratzeko plan partizipatiboen (aurrerantzean PACIS) barruan kokatzen dira. Hain zuzen, Gizarte Politika,

Familiak eta Berdintasun Kontseilaritzaren 2024ko martxoaren 26ko Ordena da PACIS horiek arautzen dituenak. Ordenaren helburua, bada, Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeei zuzendutako diru-laguntzen deialdia arautzea da, gizarteratzeko plan partizipatiboak finantzatzeko Murtziako Eskualderako FSE+ 2021-2027 Programaren barruan. Hau da, ekimena finantzatzeko Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoak, Gizarte Politika, Familiak eta Berdintasun Kontseilaritzaren bitartez, eta Europako Gizarte Funtsak, Murtziako Eskualderako Programa Operatiboaren bitartez. Alcantarillako Udalak ekimena lideratzen eta dinamizatzen du auzoan duen Gizarte Zerbitzuko Zentroaren bitartez. Horretarako, langileak eta gizarte hezitzaileak osatutako zonaldeko taldeak gain “beste talde” bat dugu, “komunitarioa”, eta horretan beste bi profesional ditugu (gizarte hezitzaile komunitarioa eta gizarte integratzaile komunitarioa).

Testu honen hasieran ikusi duzuen PACIS hori Historias de Barrio ekimenaren 2.0 bertsioa da. Izan ere, denbora luzez lan egin dugu auzoan, eta prozesu horren hainbat bertsio izan ditugu. Baina hori azaltzeko, atzera egin behar dugu denboran, izan ere, “Historias de Barrio 2.0” izeneko PACIS hori 2018tik egiten ari garen jarraipen-prozesu bat da. 2019an, lehen finantziazioa lortu genuen Europako Gizarte Funtsaren eta Autonomia Erkidegoaren eskutik. Hura “Tokiko Garapen Partizipatiborako Ituna” (“Historias de Barrio”) deitutako ekimena garatzeko finantziazioa zen, 2019-2022 aldirako. Prozesu hori berrikuntza garrantzitsu batean oinarritzen zen. Izan ere, diru-laguntzen deialdiaren arabera, aurkeztutako proiektuek tokiko diagnostiko partizipatiboko prozesu bat egin behar zuten lehenengo (aurrerago hobeto azalduko dugu hori). Prozesua komunitateak egin behar zuen eta, horren bitartez, hainbat eremutan ekintza zehatzak artikulatu behar zituen. Horretarako, bada, sinergiak edo sare lana egiteko modu berritzaileak eta partizipatiboak garatu behar zituen.

2022. urtea amaitzean, finantziazioa bukatuta zegoen, baina auzoan sortutako sarea martxan jarraitu zuen. Hain zuzen, sare-egitura komunitarioaz eta auzokoen beharrei eta eskakizunei erantzuteko ekintza komunitarioko prozesuaz ari gara. Horretarako, Alcantarillako Udalak bere funts propioekin mantendu zuen ekimena, 2024an PACISen deialdian diru-laguntza berria lortu genuen arte.



Alcantarillako Udalak utzitako argazkia.

Nabarmendu nahi dugu gure PACIS hori parte hartzeko prozesua dela, eta auzoko eragile guztiak izan dituela. Historias de Barrio, prozesu komunitario gisa, lan bateratuko uneak izan ditu, eta, jakina, kontraesan bateratuko uneak ere. Hain zuzen ere, prozesuaren momentu batean gelditzea erabaki genuen, “ekintza komunitarioak” planteatzeko ideia sortu zenetik egindakoa guztion artean ebaluatzeko. Horri esker, gure planteamenduak eta egiturak berrikusi ahal izan genituen, eta partaideen beharrei hobeto egokitu eta hurbildu ahal izan genituen

Bide (“drom” erromanieraz) horretan zehar, jarduteko gida bat ere egin dugu, ekintza komunitarioko prozesuaren funtzionamendua arautzeko. Horretan, gure egunerokoan eragiten duten kontzeptu zehatzen definizio propioak daude. Izan ere, elementu horiek gure jardunbidearen atzean ezkutatzen ziren, eta izendatu behar genituen agerian uzteko. Batzuen esanetan, kode etiko bat diseinatu dugu, baina hori, dakizuenez, gida bat baino askoz zabalagoa da. Kode etikoa lan egiteko modu bat

da, eta lurraldean “izateko” eta “bizitzeko” modu zehatz bat.

Harrigarria da hau guztia auzotik paseatzen sortu izana. Gero, hainbat pertsona –guztiak “auzoko biztanleak”, nahiz eta batzuk “bidaiariak” ginen– hausnartzeko elkartu ginen: zergatik zen horrelakoa auzoko kaleetan gertatzen zena eta ez beste modu batekoa? Lehen esan bezala, gure ustez, Historias de Barrio ekimenaren berrikuntza handi bat izan da aurretiko diagnostiko bat izan duela, eta gizarte-ikerketako prozesu hori “aplikatua”, “kokatua” eta batez ere “parte hartzekoa” izan dela.

2020an COVID 19ak eragindako pandemiaren ondorioz agindutako konfinamenduarekin batera hasi zen une horri buruzko “istorioa asko” konta ditzakegu. Guretzat, profesional gisa, oso ederra izan zen ikustea nola jendeak *wifi* konexioa partekatzen zuen *online* batzar batera konektatu ahal izateko, edo nola laguntzen genion elkarri, gutako batek *zoom* aplikaziora konektatzen edo *whatsapp* bidez bideo-dei bat egiten ikas zezan. Gogoan izan

osasun arloko agintariek “distantzia soziala” eskatzen zutela, baina inoiz ez zen “distantzia emozionala” izan. Une hartan sortutako informazio horretatik, ondorio argia atera genuen: auzoa zaindu beharra zegoen. Auzoko emakume ijito maite batek edertasun handiz azaldu zuen telebistako elkarrizketa batean, “Cuido mi barrio” (Nire auzoa zaintzen dut) kanpaina aurkeztu genuenean. Kanpaina, hain zuzen ere, COVIDaren pandemiaren unerik gogorrenetik auzoan izan zuten ondorioei buruz sentsibilizatzeko izan zen. Emakume gazte horrek argi adierazi zuen kanpainaren leloa. Badago zure indar guztiekin zaintzen duzun zerbait, eta hori –jakina– familia da. Haiekin bizi zara toki batean, auzo batean, eta haiekin partekatzen duzu egunerokoa. Beraz, familia zaintzen baduzu, auzoa zaindu behar duzu. Zure auzoak zu zaintzen zaituen bezala. Baina gauza asko ikasi genituen auzoa nola zaindu pentsatzen genuen bitartean. Orain, kontatuko dizugu nola hasi ginen auzoko istorio bat kontatzen.

2. Tokiko diagnostiko partizipatiboa

Honelako prozesu bati buruz hitz egiten dugunean –toki batean gertatzen denaren azterketari buruz ari gara–, beharrezkoa iruditzen zaigu metodologiaren inguruko eztabaida planteatzea. Jakingo duzueenez, prozesu horri ekiteko hainbat modu daude. Oro har, eta aurretik geneukan esperientzia profesionalaren arabera, horrelako prozesuak “goitik” planteatu ohi dira. Batek jakintza “tekniko edo profesional” bat du, ikerketa diseinu jakin bat garatzeko –kasu gehienetan, kuantitatiboa–. Hura testuinguruan aplikatzean, “esku hartu” beharreko alderdiak zehazten dira. Hortik sortzen dira, beraz, inguruko baldintzak hobetzen lagunduko duten proposamenak eta proiektuak. Ez dugu esan nahi jokabide hori desegokia edo okerra denik; esan bezala, egiteko modu bat da, baina beste batzuk ere daude. “Beste horiek”, ordea, marjinetan kokatzen dira; izan ere, utopikotzat hartu ohi dira, eta, kasu gehienetan, “ez-zientifikotzat” jotzen dira. Baina, harrigarria bada ere, “ezagutzeko beste modu horiek” –marjinalak, kritikatuak edo gutxietsiak– ederki moldatzen dira testuinguru jakin batzuetara –halaber marjinalak, kritikatuak eta gutxietsiak direnak–. San José Obrero auzoa toki “abandonatua” zirudien. Oso irudi sozial negatiboa zuen, eta horrek neurritz kanpoko eragina zuen bertan bizi zirenen bizi-ibilbideetan. Hortaz, haien eguneroko bizipenei hurbiltzeko modurik onena

ikerketa-prozesu baten bitartez zen. Hura, bada, gizarte ikerketa moduko bat izango zen, eta, aldi berean, mobilizazio kolektiborako eremu.

Prozesuak gizarte eta harreman dinamika mota jakin bat ezartzen lagundu zuen auzoan. Lehenik, komunitatea prozesuaren garapenaren eragile nagusia izatea gauza berria zen auzoan. Jendeak beren etxeak irekitzen zituen beren bizitzari buruz hitz egiteko, lehen ez bezala, eta gainera kontu askoren inguruan zuten iritzia galdetzen zieten. Nolanahi ere, harritzekoa zen nortzuk galdetzen zuten: auzotarrek berek, auzoan lan egiten zutenen laguntzaz (azken hauek ere auzotarrak, baina, dakizueenez, “bidaiaariak”). Kasu horretan, gure eginkizuna laguntzea besterik ez zen. Aulki batean eseri eta auzotarrek esan beharrezkoa entzuten genuen. Elkarrizketa telefonoan grabatzen genuen, gero jende gehiagorekin entzuteko.

Premisa horretan argi ikusten da gure proposamenaren norabidea: auzoetan bizi diren lagunak ez dira “proposamenen kontsumitzaile” hutsak, eta, eragiletasuna duten neurrian, “proposamenak sortzeko” beharrezkoa den “protagonismoa” izan behar dute. Gure aukera metodologikoa prozesu hori garatzeko Ikerketa Ekintza Partaidetza (IEP) izan da (eta da). Honela ulertzen dugu:

“emaitza fidagarriak eta erabilgarriak lortu nahi dituen ikerketa eta ekintza metodoa da, egoera kolektiboak hobetzeko helburuarekin, eta ikergai diren kolektiboen parte hartzean oinarritzen du ikerketa. Hala, horiek ikerketaren “objektu” izatetik subjektu protagonista izatera pasatzen dira” (Alberich, 2008: 139. or.).

Egoeraren azterketa egin beharko zuen Talde Eragilea osatzeko prozesuarekin hasi ginenean, “auzoko herritar ez antolatu” horiengana hurbiltzeko interesa genuen. Izan ere, proposamen horiekin hasi ginenean, San José Obreron ez zegoen bertako biztanleen kezka eta eskakizunak jasoko zituen oinarritzko auzo elkarerik. Beste une batzuetan halakorik egon omen zen, eta eragin handia izan omen zuen auzoan. Baina lan hori eten egin zen, eta hori desagertzean, beste erakunde batzuen lana sartzeko aukera sortu zen.

Guk ez dugu inoren lana kritikatu nahi, gu ere egoera horretan kokatzen dugu gure burua. Baina egia da, 2018an sartu ginenean, auzoan erakunde

askoren “esku-hartzea” zegoela, eta haiek ikuspegi “tekniko” batetik saiatzen ziren –ahal zuten beza-la– auzoko egoera konplexuari irtenbidea ematen. Egoera horretan, komunitatearen parte hartzea Hirugarren Sektoreak edo Tokiko Administrazioak proposatutako jardueretan edo tailerretan laguntzaren bat ematera mugatzen zen. Berriz ere, auzotar ijito baten esanetan, parte-hartzea “elikagaien piramideari” buruzko jardueraren batera joatera mugatzen zen. Hala, ez ziren Herri Ijitoaren aurkako arrazakeriari eta diskriminazioari buruzko eztabaidak antolatzen, nahiz eta azken horrek bai eragiten duen auzo segregatu eta estigmatizatu batean bizi diren emakume ijitoen egunerokoan.

Zentzu horretan, gure proposamenaren helburua zen herritarrak ahalduntzea eta helburu komun bat lortzeko antolatzea. Baina aldi berean, “aditurik” gabeko gizarte-ikerketako prozesuak sortu nahi genituen. Izan ere, adituak, maiz, botere egoeran izaten dira komunitateko beste eragile batzuen aurrean, azken horiek “kapital kulturalik” ez dutelakoan. Denboraren poderioz, konturatu ginen auzotarrek kapital kultural izugarria dutela. Gainera, prozesuan parte hartzen zutenak ez ziren “ikerketaren objektu”; izan ere, auzoa bera, azkenean “subjektu propioa” zen, eta gizarte eraldaketako prozesu batean lan egiten zuen. Inoiz elkarrizketarik egin ez zuten, eztabaida talde batean parte hartu ez zuten edo tailer partizipatibo baten izan ez ziren pertsona asko –bai, gure metodologia kualitatiboa da baina auzoko datu soziodemografikoak aztertu ditugu– konturatu egin ziren gizarte ikerketako teknika horiek lantzeko gaitasun naturala zutela. Talde Eragilean parte hartu zuen auzotar ijito batek, ikasketak derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen mailan utzi bazituen ere, izugarri kontrolatzen zituen elkarrizketaren “tempoak”: galdetzen zuen, argitzen zuen, berriz galdetzen zuen eta elkarrizketa gaira ekartzen zuen, naturaltasun izugarritz. Ematen zuen bizitza osoa eman zuela horretan, baina, jakina, zer da salmenta ibiltaria elkarrizketatzea ez bada? Ba hori... kapital kulturala. Baina askok pentsatuko duten lanbide hori ez dela “jasoa”, ez dituela ezagutza garrantzitsuak sortzen pertsonak egunerokoan “nabigatzeko”.

Historias de Barrio IEParen Talde Eragileak ezarritako informazioa sortzeko prozesua bost kategoriaren inguruan antolatu zen. Katgoria horiek, bada, zentzua eman zioten auzoan gertatzen ziren gauza askori, eta zentzua hartu dute diagnostiko-

-prozesuan erabilitako gizarte ikerketako teknika gehienetan. Gainera, garrantzia hartu zuten prozesuaren funtsezko informatzaile ziren partaideen diskurtsoetan, horien adina alde batera utzita. Hau da, hitz tekniko bat erabiltzeko, gai “saturazio” argia zegoen. Horrek, bada, “gai sentikorrak” agertzeko aukera mugatzen zuen, baina gai horien bidea hartu behar genuen auzoan eraldaketak garrantzitsuak egin nahi bagenituen. Katgoria horiek patxadaz azaltzeak testu honen helburua gainditzen du, baina aipatuko egingo ditugu, horiek agerian uzteko. Auzoarentzat garrantzitsuak dira, eta, hortaz, gure betebeharra horiek zabal-tzea eta lantzea da. Testu hau, jakina, horri buruzko kontzientzia pizteko beste modu bat da. Bada, sortutako informazioak honako katgoria hauek eman zituen:

- Estigma
- Segregazioa
- Zibismoa
- Hezkuntza
- Enplegua

3. Nola lan egin auzoan? Zenbait ohar San José Obrero auzotik

Horrelako auzo batean lan egiteak ematen digun esperientziatik, zenbait aholku eman ditzakegu, testuinguru konplexu batean ekintza komunitarioko prozesu bat lantzeari dagokionez. Tokiko diagnostiko partizipatiboaren ostean, sare-laneko sinergiak sortzen jarraitu genuen; baita ekintza zehatzak ere, auzoaren egoera eraldatzeko planaren barruan markatutako helburuak lortzen laguntzeko. Berriz ere, prozesu horri buruzko informazio asko partekatu nahi genuke zuekin, baina testua oso luzea izango litzateke eta ez litzateke Amaiak eskatutakoari egokituko. Hortaz, hasierako antolakuntza-eskema labur azaltzea nahikoa izan daiteke, eta, ondoren, sare hori gaur egun nola dinamizatzen ari garen kontatuko dizuegu.

San José Obreroko Sare Komunitarioak, hasiera batean, 11 lan-ildo espezifiko izan zituen. Horien artean, nabarmentzekoak dira ekintza-eremukako (hau da, hezkuntza, enplegua, osasuna, komunikazioa...) lan-batzorde tematikoak, IEParen Talde Eragilea eta Tokiko Ekintza Taldea. Lan-eremu horien inguruan 16 ekintza-proiektu sortu ziren, diag-



Alcantarillako Udalak utzitako argazkia.

nostikoaren bost kategorien arabera markatutako beharrei erantzun integralak eta interkonektatuak emateko. Plan horren “emaitzen” datu zehatz gisa, esan dezakegu 600 lagun inguruk parte hartu zutela ekintza horietan. Alcantarillako Udal Erroldaren arabera, San José Obreron 1267 pertsona bizi dira.

Geroago, prozesu komunitarioaren ebaluazio partizipatiboaren ondoren, Sare Komunitarioaren lan eremuak murritztea erabaki genuen, lana sare horretan lan egiten eta hura dinamizatzen dugunon beharretara eta eskakizunetara moldatzeko. 2025ean, Tokiko Ekintzarako Talde Erreferentea, gizarte berrikuntzako bi laborategi (“Komunikazioa” eta “Partaidetza”) eta auzo lanerako hiru mahai (“Haurrak eta Gazteak”, “Enplegua eta Prestakuntza” eta “Osasuna”) ditugu. Agian harrituko zaituzte Talde Eragilea baztertu dugula jakiteak. Gure helburua, orain, Auzotarrek parte hartzeko Talde bat osatzea da, erabakietan eta jarduketamailetan autonomia izango dena. Ulertzen duzue orain zergatik hurbildu nahi genuen antolatutako gabeko herritarrengana? Litekeena da 30 bat lagunek talde hori osatzea 2026an zehar. Etorkizunean hura San José Obreroko auzo elkarte berria izatea nahiko genuke. Zentzu horretan, beste gauza bat esango dizuegu. Gure Sare Komunitarioan maitasunez zaintzen dugun beste proiektu bat “CIVIS. San José Obrero” da. Proiektu horrek, funtsean,

auzoko nagusiei (batez ere “gure amamei”) parte hartzeko eremu bat eskaintzeko helburua du, nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko eta, halaber, zahartze prozesuan eragiten duten hazkunde pertsonaleko eta partaidetza komunitarioko eremuak eskaintzeko. Gure helburua zen, hain zuzen ere, zahartze hori “aktiboa” izatea, eta hain izan da aktiboa non emakume parte-hartzaileek beren jarduerak kudeatzen dituen elkarte bat sortu baituten, ez “aurrendarientzat” bakarrik, baizik eta Alcantarillako emakume guztientzat. Pentsa ezazue zer aberatsa den hori: ondoko auzoetako emakumeak inoiz zapaldu ez duten auzo estigmatizatu horretara joaten dira jarduerak egitera. Gainera, “goizetan, herritik paseatzeko elkartzen dira, aktibo mantentzeko”. Auzoko istorioa, benetan ere, ez da hala?

Gure gaur egungo egiturara itzuli nahi dugu, baina orain Historias de Barrio proiektuei buruz hitz egiteko. Imajinatuko duzue, sare komunitariotik sortutako 16 proiektu horietako gehienak mantentzen ditugu. Batzuk gelditu daude, beren momentuaren zain, eta beste askok oraindik eragiten dute San José Obrero auzoaren dinamikan. Gainera, bi proiektu berri gehitu ditugu. Horietako batek “izkintako gazte” horiengana hurbildu nahi gaitu (inork ez die galdetu zein den haien “auzoko istorioa” eta hori erabat bidegabekoa da). Besteak beren hezkuntza ibilbidean lagundu

nahi die gure gaztetxoei. Gainera, prestakuntza plan bat diseinatu dugu. Horretan, komunitate osoak parte hartuko du, eta lidergo eta ahalduntze komunitarioarekin, kulturarteko ikuspegia-ekin eta testuinguru konplexuetako ekintza komunitarioarekin lotutako gaiak lantzeko erabiliko dugu.

Beraz, zer aholku eman ditzakegu gure esperientziatik? Jakin badakigu “errezetek” ez ohi dutela balio. Areago ere, gure ustez, proposamen eraldatzaileak “posizionaltasunetik” eta “gauzak bere lekuan” jartzetik sortzen dira. Egia esateko, ezin dizuegu esan nola lan egin behar duzuen zuen auzoan. Istorio hori zeuek kontatu behar duzue. Beraz, hona hemen gure lehen aholkua: “beste edozein tokik bezala brisa eta arima duten kale horietan murgil zaitezte”. Nolanahi ere, bai esan ahal dizuegu nolakoak izan behar diren, gure ustez, ekintza komunitarioko prozesuak horixe izateko, hain zuzen, “ekintza komunitarioa” eta ez beste ezer. Bada, Historias de Barrio ekimenean, gizarte eta hezkuntza ekintza komunitarioko ereduak:

1. Ekintzak globalizatzeko lan egiten du lurraldean oinarritutako ekintza-eredu baten bitartez. Eredu horretan, sare komunitarioak “ehuntzen” dira sarean lan egiteko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko. Hau da, gure lan ereduak ekintza komunitarioa artikulatzeko modu horren alde egiten du, eredu horrek komunitateak planteatutako beharrei erantzuten dien heinean (prozesu komunitarioaren ekintzak zehazten duten jarduketa-eremuen “intersekzioak” eta “interkonexioak” ikusita).
2. Malgutasun printzipioan oinarrituta diseinatzeko dituzten ekintzak. Gure ustez, gaur arte, jarrera horrek modu egokian erantzun die “auzoak bizi zituen” egoera desberdinei, prozesuan aurkitzen genituen “kanpo” eta “barne” baldintza-tzaileen arabera. Gure metodologiak komunitateak sumatutako eta sentitutako egoerara “egokitu” nahi izan du ekintza, egoera diseinatutako planteamendura moldatu beharrean. Hortaz, egoki ikusten dugu “presarik gabe baina arimaz” jarduten jarraitzea. Esaldi hori, “presarik gabe baina arimaz”, gure leloa da. Horrela jarduten eta lan egiten dugu: inolako presarik gabe eta egiten dugun horretan bihotza jarritz. Horrela egiten dugu, hain zuzen, auzoan gertatzen denaren aurrean “zaugarriak” garelako, lehen esan bezala.

3. Historias de Barrio ekimenak hurbiltasuna izan du ezaugarri, hasieratik, komunitatean egiten dugun gizarte eta hezkuntza ekintzari zentzua emateko. Ezaugarri horri esker harreman sendoak ezarri ditugu, eta, harreman komunitario sendo eta dinamiko horietan, gizarte eta hezkuntza arloko laguntza izan da gizarte kohesioa garatzeko bide nagusia. Gainera, hurbiltasun hori lagungarria izan da ekipamendu komunitarioek prozesuaren arrakastan izandako garrantzia nabarmentzeko. Hain zuzen ere, Historias de Barrio proiektuko ekimen gehienak Zentro Integralean garatzen dira, eta azpiegitura hori da, izan ere, hurbiltasun horren adibide nagusia. Zentro Integrala, Klinenbergekin esan bezala (2021), “herriarentzako jauregi” bat da.

Printzipio metodologiko horiek jarduketa metodologikoko bost irizpidetan oinarritzen dira azken batean. Esan beharra dago irizpide horiek funtsezkoak izan daitezkeela “ahaztutako auzoetan” prozesu komunitarioak garatzeko. Beraz, horiek dira gure ekarpenak zuen auzoan lan egiten has zaitezten:

Kulturarteko ikuspegia eta genero ikuspegia

Kulturarteko ikuspegia giza aniztasunaren metafora gisa ulertzen da (Guía INTER, 2006). Metafora horrek, bada, gizartean talde eta komunitate jakin batzuei buruz dagoen ikuspegi estereotipatua “desesentzializatu” nahi du. Aniztasun kontzeptuaren kontzepzio espezifiko batetik abiatzen gara; hain zuzen, hura gizateriaren berezko elementutzat hartzen duen horretatik, eta ez desberdintasun kulturalen ikuspegitik. Ikuspegi horrek, hain zuzen, pertsona, taldea edo komunitatea protagonistatzat edo eskubideen titulartzat hartzen dituen ikuspegia erabiltzen du. Hala, onartzen du gizarte errealitate anitz batek errealitatearen irakurketa kritikoa eta kulturalki esanguratsua sustatzen duela. Aniztasun horren aurrean, kulturarteko ikuspegiak aintzatespenaren, ordezkapenaren eta balorazioaren alde egiten du. Izan ere, ikuspegi haren arabera horixe da estigmatizazio eta diskriminazio prozesuak lantzeko biderik egokiena.

Beste alde batetik, prozesu komunitarioa zeharkatzen duen beste kontu bat da genero ikuspegia jarduera guztien diseinuan sartzea. Halaber, beste proposamen edo aholku bat eman nahi dizuegu: saia zaitezte zure auzoari “ikuspegi ijito” bat emateko.

ten. Ijitoak beti dira auzotarrik ahaztuenak. Historias de Barrio ijitoa da funtsean. Gure ekimenetan parte hartzen duten lagun gehien-gehienak ijitoak dira, eta gure ustez hori baliotsua da. Hau da, ñabardura garrantzitsu bat ematen dio gure lanari, eta, era berean, erabat garrantzitsua da. Ijito Herriak “bere istorio propioa kontatzeko” eskubidea du. Azkenik, beste gauza bat, hurrengo irizpidera pasa aurretik: buruan izan emakume ijitoak. Haiek diskriminazio interseksionala jasaten dute. Agian, denak ez du balio haientzat. Zaindu itzazue, presarik gabe, baina arimaz.

Gizarte eta hezkuntza ekintza

Gizarte eta hezkuntza ekintza bidelaguntzaren ideian oinarritzen da. Hala pertsonan, taldean edo komunitatean zentratutako prozesu gisa ulertzen du “nola egin” hori. “Nola egin” horretatik gertu, bada, “izan” bat aurkituko duzue. Horixe da oinarritzakoa: ez dago ekintzarik “izan” bat gabe. Benetakoak izan behar zarete harremana ezartzeko edo konfiantza lortzeko. Bestela, agian auzoan lan egin ahal izango duzue, baina ez modu esanguratsuan. Gainera, kontuan izan gizarte eta hezkuntza ekintzak, eskubideetan oinarritutako ikuspegi gisa, honako helburu hauek dituela:

- Gizarte eraldaketa
- Gizarte eta kultura dinamizazioa
- Herritartasuna eraikitzea

Lurralde ikuspegia

Jarduteko irizpide metodologiko honek auzoan dauden beste eragile eta erakunde batzuekin “konexioak” eta “harremanak” ezartzeko behar den jarrera jasotzen du. Óscar Rebolloren eta Fernando Pindadorek ustez (2022), komunitateen indartzea lurralde jakin batean gauzatzen da. Hortaz, “auzo aintzatespen” hura, komunitate osoak partekatutako proiektu esparru bati lotutako harremanetan oinarrituta, auzoa eta ingurua “konektatzeko” aukera emango duten estrategiak artikulatzeko ardatza izango da. Proiektu independenteek –eta batzuetan elkarri axolarik ez diotenek– ekarri ohi duten “kapsulamenduaren” aurrean, gure proposamenak barrurako zein kanporako “zubiak eraikitzen” ditu, auzo ahaztuek jasaten duten estigma eta segregazioa lantzeko modu gisa.

Gure ustez, “auzo barruan” gizarte kohesioa eta baliabide komunitarioak sortzen ez dituzten proiektuak eta “auzotik irtetera” besterik bideratzen ez diren proiektuak erabat oker daude. Ez du inolako zentzurik auzoa ez indartzeak. Beti “irtetera” bideratzen badira, eta ez “barruan” eraikitza, desparekotasunak handituko dituzte eta segregazioa erreproduzituko dute.

Logika komunitarioa

Ikuspegi hau parte hartzearen eta komunitatearen protagonismoaren inguruan egituratzen da, auzoan sortuko den prozesuaren ardatza nagusi gisa. Hala, egin beharreko jardura formalki antolatuta ez dauden biztanle sektoreetan ardatzen da. Beraz, parte hartuko duen eta bere nahiak, kezak eta iritziak adieraziko dituen “jendearen bila irten” beharra dago, protagonismo komunitario horren modu esanguratsu gisa. Baina ez ditugu alde batera utzi behar dagoeneko ondoan ditugun horiek. Beste era batera esanda, Historias de Barrio ekimenak, lehen aipatu bezala, komunitatea “proposatzen duen subjektu” gisa eta ez “kontsumitzen duen objektu” gisa ulertzearen garrantzia erakutsi digu.

Kudeaketa publikoa

Historias de Barrio ekimenak proposatzen digu honako elementu hau jarduteko irizpide metodologiko gisa hartzea: eremu publikoaren (kasu honetan, tokiko administrazioaren) lidergoa, parte hartzeko eta sare komunitarioak sortzeko prozesuak dinamizatzean. Ikuspegi horrek gizarte-eremuak eta azpiegiturak interes pribatu edo tradizionalen arabera korporatibizatzen dituen “instituzionalizazioa” baztertzen du, lankidetzako publiko-komunitarioaren bitartez (Rebollo eta Pindado, 2022). Hori auzoan sortutako Sare Komunitarioarekin lotzeko estrategia bat da. Halaber, ikuspegi horrek herritarrak ahaldunduz laguntzen du, eta haiek sentitzen eta adierazten dituzten beharrei alternatiba bat eskaintzen die hainbat eremutan.

4. Gure istorioa amaitzeko

Ikusi ahal izan duzuen bezala, San José Obrero auzoko prozesu komunitarioa aberatsa da ñabarduretan eta berezitasunetan. Halakoak dira auzoan bizi diren lagunak ere (baita bertan bizi ez garenak

baina egunero bertako kaleetatik ibiltzen garenak ere). Gure istorioa amaitzeko, beharrezkoa iruditzen zaigu artikuluan (edo kontakizunean) zehar sortutako zenbait ideia laburbiltzea.

Jende askok galdetzen digu nola egin dezakegun lan inolako bertuterik omen ez duen auzo “marjinal” eta arriskutsu horretan. Ez dugu esan, baina gure auzoak ezizen bat du. Maiz, San José Obrenoren inguruan dituzten beldurrei buruz hitz egiten diguten pertsona horiek ez diote auzoari bere izenaz deitzen. Askok, izan ere, ez dakite nola deitzen den ere. Bakarrik ezagutzen dute ezizen beldurgarri hori. Historias de Barrio ekimenak etengabe errepikatzen du San José Obrero ez dela “legerik gabeko hiria”, bertan bizi den jendea garrantzitsua dela, ez dagoela soberan. Lurralde estigmak bere itzala luzatzen du auzoan, eta eragin latza du pertsona horien bizitzan. Pertsona horiek gure auzokideak dira, eta zaindu behar ditugu. Hortaz, zergatia galdetzen digutenean beti esaten digu gauza bera: beharrezkoa delako, gure egitekoa delako. Jarraian, San José auzora (ez “hirira”) etortzera gonbidatzen diegu, hain zuzen ere, hura ezagutzeko.

Azaldutako ibilbidean, konturatu egin gara elkarriketan aritzea dela zaintzeko modurik onenetarikoa bat. Jakingo duzueenez, asko idatzi da “jakintzen elkarriketa” delakoari buruz; agian Hegoalde Globalean gehiago (gure ustez, gehiago begiratu behar dugu hara), baina argi dago kontzeptu hori oso hedatuta dagoela Europako esparru akademiko eta profesionalean ere. Hedatuta bai, baina gure ustez ez behar bezala baloratuta, ez behintzat eremu eta proposamen batzuetan merezi duen bezala. Elkarriketa horrek, nolahi ere, gauza asko ekarri dizkio auzoari. Pentsamoldeak aldatu ditu, eta jarduteko bide berriak sortu; hain zuzen ere, beldurra eta arbuioa eragiten zuen auzo batean. Moduak eta ekintzak aldatzen lagundu du (gogoan izan: jendea “elika-gaien piramideaz” nazkatuta dago, besta gauza batzuei buruz hitz egin nahi du! Egin diezaiogun kasu), eta, batez ere, San José Obrerotik bereizi ezin den prozesu baten oinarriak ezartzen lagundu du.

Gaur egun, “sutan dagoen mundu” batean bizi gara. Horretan, gorroto diskurtsoak eta diskriminazioa gero eta gehiago ikusten ditugu gure egunerokoan. “Auzokoa izate” hutsak zure bizitza

markatzen du, hasiera-hasieratik ere. Gure esperientziak esaten digu, bada, ikuspegi hori bizkarrean eramanda oso zaila dela hainbat kontu lantzea. Azkenean, badirudi desberdinkeria egoeren biktimak berak direla horien errudun. Beraz, giro “toxiko” horren aurrean, bi gauza erraz gomentatzen ditugu funtsean: auzo gehiago eta ekintza komunitario gehiago.

Agur bero bat San José Obrero auzotik. Espero dugu egiten dugun lana eta egunero zapaltzen dugun auzoa zenbat maite dugun transmititu izana. Zaila izan da orrialde hauetan horrenbeste laburbiltzea. Edozer gauza, badakizuen non gauden. Eta berriz ere, agur bero bat eta auzoan ikusiko dugu elkar!

Bibliografia

Alberich Mistar, Tomás (2008). IAP, mapas y redes sociales: desde la investigación a la intervención social. *Postularía*, 8 (1): 131-151.

Behar, Ruth (1996). *The Vulnerable Observer. Anthropology That Breaks Your Heart*. Beacon Press.

Grupo INTER (2006). *Guía INTER: Una guía práctica para aplicar la educación intercultural en la escuela*. Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioa.

Klinenberg, Eric (2021). *Palacios del pueblo. Políticas para una sociedad más igualitaria*. Capitán Swing.

Rebollo, Óscar eta Pindado, Fernando (2022). La segregación cívico-comunitaria en Blanco, In Ismael eta Gomà, Ricard (koord.): *¿Vidas segregadas? Construir fraternidad*. Tirant Humanidades: 59-84.

Small, Mario Luis (2017). *Someone To Talk To*. Oxford University Press.

Jesús Fernando Campos Gómez
(Gizarte eta Komunitate Hezitzailea.
Alcantarillako Udala)
eta Ana Belén Real Murillo
(Gizarte eta Komunitate Integratzailea.
Alcantarillako Udala)

begirada konprometituak

zinema
dokumentalak


Izenburua: Nuestras aguas. Conflictos y propuestas desde el Norte de Extremadura

Lekua, urtea: Espainiako Estatua, 2024

Ekoizleak: Cultivando agua, EcoJerte eta OjoVago

Zuzendaria: Iria Sanjurjo Fernández (OjoVago Films)

Iraupena: 40 minutu



Sinopsia. Dokumentala Ecojertek Cultivando Agua talde operatiboaren esparruan egindako ikerketa partizipatiboaren parte da. Ura bizitza da, eta guztion ona, eta, horren gainean, ekonomiak eraikitzen dira, eta interesak sortzen dira. “Nuestras aguas” lanak Extremadurako iparraldeko eskualdeak aztertzen ditu hango arroiletatik dabilen ura ulertzera eta maneiatzera bideratutako eztabaidak, gatazkak eta kulturak identifikatzeko.

Gure mendietako ura zaintzeko antzinako moduak ahaztu al ditugu? Ekoizpen intentsiboko modu berriak bateraezinak al dira ekonomia tradizional iraunkorragoekin? Nola eragiten du klima-aldaketak ura jauzteko moduan? Zer uste dute bertako biztanleek? Zer nolako proposamenak egiten dituzte? (EcoJerte).

Hemen eskuragarri: <<https://www.youtube.com/watch?v=isaYwFvBk-E>>.

Izenburua: Insumisas. Mujeres en lucha en el Sáhara Occidental

Lekua, urtea: Espainiako Estatua eta Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuak, 2023

Ekoizlea: Forward Films

Zuzendaria: Laura Dauden eta Miguel Ángel Herrera

Proiektua: Hegoa

Iraupena: 26 minutu



Sinopsia. Insumisas. Mujeres en lucha en el Sáhara Occidental dokumentala Gertatutako guztia argitan jarri (Hegoa, 2022) txostenean oinarritzen da. Hala, dokumentalak Saharako giza eskubideen defendatzaileen lana ezagutzera ematen du, El Ghalia Djimi, Mina Baali, Soultana Khaya, Jadiyah El Mohtar eta Omeima Mahmud emakume defendatzaileen eskutik. Lanak lau animazio-bloke ditu, eta, horien bitartez, Marokok emakume sahararren aurka erabiltzen dituen indarkerien larritasuna eta hedadura ezagutzera ematen du, baina baita aktibista horiek beren herriaren eskubideen alde borrokatzeko erakusten duten indar etenezina ere.

Dokumentala zazpi hizkuntzatan dago ikusgai honako plataforma hauetan: Hegoa Multimedia, YouTube eta Vimeo. Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz eta hassaniaz da, baina euskarazko, alemanezko, arabierazko, frantsesezko, ingelesezko eta portugesezko azpтитuluak gehitu dira.

Hemen eskuragarri: <<https://multimedia.hegoa.ehu.eus/es/videos/193-insumisas-mujeres-lucha-sahara-occidental>>.

argitalpenak

Izenburua: A sistematizar se aprende sistematizando. Escuela de formación en sistematización

Egileak: CDPAZ Planeta Paz taldea

Tokia, urtea: Bogotá, 2023

Editorial: CDPAZ Planeta Paz



Sinopsia. Kartilla hau zenbait erakunde sozial, herritar eta akademikok Kolonbian egindako 65 praktika sistematizaturen irakurketari dagokio. Askotariko gaiak lantzen dituzte: Lurraldeko Ingurumen Segurtasuna emakumenekazarieta indigenekin; Lurraldeareneko izpena eta antolaketa Lurraldeko Ingurumen Segurtasunerako; Azoka Baserriarrak Lurraldeko Ingurumen Segurtasunean; Generoak, emakumeak eta aniztasun herritarrak bakean; Praktika Pedagogikoak eta bakerako hezkuntza; Hezkuntza Propioa arbasoen lurraldeetatik; Espedizio Pedagogikoa, sindikalismoa eta mugimendu pedagogikoa; eta Arteak, gazteak eta bakea.

Praktika herritarrak eta haien atzean dauden esperientzien eta testuinguruen eraldaketa ahalbidetzen duten ezagutzak eta jakintzak sortzeko helburua duen prozesu gisa ulertzen dugu sistematizazioa. Horrelako sistematizazio bat ez dago prozedura-giden mende; izan ere, haren funtsa da memoria egitea, jakintzak deskolonizatzea, autokritika indartzea, gure burua ezagutzea, eraldatzea, ikasitakoa partekatzea eta sentipen-tsatzearen ikuspegia zabaltzea. Hortaz, “sistematizatzu ikasten da sistematizatzen” (CDPAZ Planeta Paz).

Hemen eskuragarri: <<https://bibliotecaplanetapaz.org/handle/bpp/103>>.

Izenburua: “Diálogo de saberes”

Egileak: Zenbait egile

Urtea: 2025

Argitaletxea: Masquedós aldizkaria, 10 (13)



Sinopsia. Dosieraren gaia Jakintzen Elkarrizketa da. Hortaz, ez da zaila imajinatzea bai unibertsitate ere-dua eta bai gizarte alternatiben eraikuntza, nolabait, hausnarketa gaiak izango direla lan horiek partekatu dituzten pertsonentzat.

Azken batean, eztabaidatzen ari gara unibertsitateak eta haren jardunbideek munduaren egoera mantentzen edo eraldatzen laguntzen duten. Hau da, Unibertsitateak bizitzaren eta giza duintasunaren aldeko borrokekin bat egiten duen ala ez. Borroka horiek, bada, autonomiaren, bestelako gizarte batzuen eta izan daitezkeen beste etorkizun batzuen aldeko borrokak dira. Beraz, hezkuntzaren politikotasunari buruz pentsatzeko aukera da. Gure erreferente kontinentaletako batek, hain zuzen ere, Paulo Freirek, askotan eztabai-datu du gai hori: zer hezkuntza zer gizarterentzat? (Javier Di Matteo).

Hemen eskuragarri: <<https://ojs.extension.unicen.edu.ar/index.php/masquedos/article/view/435>>.

Erakundeak

Kolektiboaren izena: Sindicat de Llogateres Kataluniako maizterren sindikatua

Eragin eremua: Katalunia

Webgunea: www.sindicatdellogateres.org



Borrokarako idealak. *Sindicat de Llogateres i Llogaters erakundea osatzen dugun lagunok alokairuan bizi gara, Katalunian, hala nahi dugulako edo hala egokitu zaigulako; eta etxebizitza duina, egonkorra eta segurua izateko eskubidea defendatzeko elkartu gara. Gure apustu estrategikoak sindikatuaren ideian oinarritzen dira, antolakuntza-eredu gisa. Maizterren erakunde autonomo baten alde egiten dugu, bi oinarriekin: gatazka zehatzak konpontzea, eta, hala, botere autonomoa eta eragin politikoa lortzeko aukera ematen digun programa sortzea.*

Honako hauek dira gure ildo estrategikoak: Desobedientzia: Geratuko Gara (Ez Gara Joango); Maizterrak etxeko nagusiaren arabera antolatzea eta negoziazio kolektiboa (Sindicat de Llogateres i Llogaters).

Kolektiboaren izena: Sevilla Negra

Eragin eremua: Sevilla

Webgunea: www.sevilla-negra.com



Borrokarako idealak. *Sevilla Negra elkarteak sortzeko inspirazioa Jesús Cosanoren “Los invisibles” liburuaren irakurketa sakonetik etorri zen. Lan horretan, Sevillako pertsona beltzen egoera eta gertakari historikoak azaltzen ditu egileak. Egia historikoarekin eta benetako errepresentazioarekin konprometituta, Sevilla Negra elkarteak pertsona beltz eta mulatoen esperientzien eta lorpenen berri emateko helburua du, horiek funtsezko eginkizuna izan baitute hiriaren identitatean eta bilakaeran mendeetan zehar. Helburuak:*

- *Pertsona beltz afrikarren eta afrikar jatorrikoen eskubideak eta giza duintasuna defendatzea eta sustatzea: berdintasunaren eta justiziaren aldeko borroka.*
- *Sevillako biztanleria beltza hiriko gizarte, politika eta kultura bizitzaren subjektu gisa nabarmentzea: haien identitatea eta ekarpenak ezagutzera ematea. Ordezkaritza izatea eremu guztietan.*
- *Sevillako pertsona beltzen historian inspirazioa hartzea: ahaztutako kontakizunak eta ekarpenik nabarmenak berritzea.*
- *Gure arbasoen historia orainarekin lotzea: afrikar jatorriko komunitateak denboran zehar izandako bilakaera ezagutzera ematea...*
- *Komunitate bat sortzea: Sevillako komunitate beltza elkartzea, identitatea eta kide izatearen zentzua indartzea (Sevilla Negra).*

ezinbesteko agenda

Ekitaldia: Hezkuntza Konprometituari eta Kritikoari buruzkoa Nazioarteko Biltzarra

Antolatzailea: Bartzelonako Unibertsitatea eta EduAlter

Tokia eta data: Bartzelona, 2026ko urtarrilaren 22tik 24ra

Informazio gehiago: <https://educacioncomprometida2026.es>



Biltzar honen helburua da jakintzak eta esperientziak partekatzeko foro bat sortzea hezkuntza aldaketaren funtsezko eragileen artean: irakasleak, ikasleak, unibertsitateak, erakundeak eta hiritartasunerako hezkuntzaren eta justizia globalaren arloan diharduten elkarteak.

Funtsezko gaiak landuko ditugu, hala nola irakasleen eginkizuna, eskolen eta gizarte eta hezkuntza erakundeen arteko kolaborazio praktikak, eta curriculumaren azterketa eta eraldaketa, baita egitura hegemonikoak zalantzan jartzen dituzten eta iparralde-hegoalde harremanei buruzko ikuspegi kritikoak eta alternatiba inklusiboak eta ekitatiboak sustatzen dituzten hezkuntza esperientziak ere.

Biltzarra egituratzen duten bost ardatz tematikoek honako gai hauei buruzko eztabaidak lantzen dituzte: Curriculum biziak, jardunbide pedagogiko eraldatzaileetan oinarrituak; Justizia globalarekin eta guztien onarekin konprometitutako esperientziak eta ikerketa; Hezkuntza eta Ikaskuntza globala gizarte eraldaketarako; Irakasleen prestakuntza gizarte eta hezkuntza konpromisoan oinarrituta; Pedagogia alferrikakoak hezkuntza kritiko eta konprometitu baterako (Universidad de Barcelona eta EduAlter).

Ekitaldia: Unibertsitate mikrokredentziala Pedagogia Antifaxistan

Antolatzailea: Leongo Unibertsitatea

Tokia eta data: Online, 2026ko maiatzaren urtarrilaren 15etik maiatzaren 15era

Informazio gehiago: www.unileon.es/estudiantes/oferta-academica/titulos-propios/oferta/microcredencial-en-pedagogia-antifascista



Mikrokredentzial honek hainbat helburu ditu: i) Jardunean dauden irakasleen eta etorkizuneko irakasleen eginkizuna indartzea eta birgaitzea, hezkuntza eta gizarte demokratiko, inklusibo eta kulturarteko batekin konprometitutako hezkuntzako profesional gisa; ii) Jardunean dauden irakasleei eta etorkizuneko irakasleei neofaxismoari buruzko ezagutza eta azterketa kritikoa erraztea, gizarte bidezkoago eta toleranteago bat sustatzeko; iii) Jardunean dauden irakasleei eta etorkizuneko irakasleei tresna pedagogikoak ematea, irakasgai guztietan hezkuntza antifaxista bat lantzeko gorroto-diskurtsoen aurrean; eta iv) Jardunean dauden irakasleengan eta etorkizuneko irakasleengan gaitasun eta estrategia pedagogikoak sustatzea, balioetan oinarritutako ikaskuntza errazteko, giza eskubideekin eta guztien onarekin konprometitutako hezkuntza kritiko baten bitartez, eta neofaxismoaren hazkundeari aurre egiteko (Facultad de Educación, Universidad de León).

VAGAS Y MALEANTAS: UNA HISTORIA [INCOMPLETA] DE ACTIVISMOS ANDALUCES

*Guardianxs de la contramemoria
1970-1990 periferia de la periferia

NI GUERRA
QUE NOS DESTRUYA
NI PAZ
QUE NOS
OPRIMA



"EL POSICIONAMIENTO ANTI OTAN Y CONTRA EL MILITARISMO HA SIDO UNA CONSTANTE EN LOS MOVIMIENTOS FEMINISTAS Y DE LA DISIDENCIA SEXUAL Y DE GÉNERO ANDALUCES A LO LARGO DE LA HISTORIA".



Prisión Provincial De Huelva

"EN LA DÉCADA DE LOS OCHENTA Y NOVENTA LOS FRENTE DE LIBERACIÓN HOMOSEXUAL TUVIERON QUE HACER FRENTE A LA CRISIS DEL VIH/SIDA. ELLO TAMBIÉN TRANSFORMÓ LAS ESTRATEGIAS DE LUCHA DE LOS COLECTIVOS".



LOS FRENTE DE LIBERACIÓN HOMOSEXUAL ANDALUCES TOMARON COMO EJE CENTRAL DE SUS ACCIONES LA LUCHA CONTRA LA LEY DE PELIGROSIDAD Y REHABILITACIÓN SOCIAL - LPRS (1970).

¡ABAJO LA LEY! (PELIGROSIDAD SOCIAL)

EL ESFUERZO MILITANTE CONTRIBUYÓ PARA QUE EN ENERO DE 1979 SE PUBLICARA EN EL BOE LA ELIMINACIÓN DE LOS ASPECTOS RELACIONADOS CON LA HOMOSEXUALIDAD DE LA LPRS. LA DEROGACIÓN TOTAL DE LA MISMA SE PROPUGNO EN 1995.

POR UNA
SEXUALIDAD
LIBRE

La primera manifestación por la libertad sexual en Andalucía se celebró el 15 de mayo de 1978 en el marco del Día Internacional de la Liberación Homosexual.



NO DEJES QUE TU CUERPO
SEA UNA CÁRCEL!



[FHAR] 1976/77 GRANADA
FRENTE HOMOSEXUAL DE ACCIÓN REVOLUCIONARIA
[UDH] 1976 MÁLAGA
UNIÓN DEMOCRÁTICA DE HOMOSEXUALES DE MÁLAGA
[MLH] 1977 GRANADA
MOVIMIENTO DE LIBERACIÓN HOMOSEXUAL
[MHAR] 1977 SEVILLA
MOVIMIENTO HOMOSEXUAL DE ACCIÓN REVOLUCIONARIA DE ANDALUCÍA
[FLGG] 1978 GRANADA
FRENTE DE LIBERACIÓN GAY DE GRANADA
[FLHA] 1981 GRANADA - SEVILLA - MÁLAGA
FRENTE DE LIBERACIÓN HOMOSEXUAL DE ANDALUCÍA

*carnavales de SEVILLA 1979



DE FORMA GENERAL, LAS LESBIANAS EN EL CONTEXTO ANDALUZ SE ORGANIZARON, MAYORITARIAMENTE, EN TORNO AL MOVIMIENTO FEMINISTA EN LA DÉCADA DE LOS SETENTA Y OCHENTA.

[RMG] 1976 GRANADA
COMISIÓN DE LESBIANISMO DE LA ASAMBLEA DE MUJERES DE GRANADA

[AKELARRE] 1984 SEVILLA

*encuentros y debates en la cristería de la librería Fulmen, SEVILLA

[LGC] 1993 CORDOBA
LIBERACIÓN GAY DE CORDOBA

[LIGAN] 1994 CORDOBA
LIBERACIÓN GAY DE ANDALUCÍA

¡NO AL SILENCIO!
LESBIANISMO AL VIENTO!



COMO ESTRATEGIA POLÍTICA DIFERENTE A LA DE LOS COLECTIVOS MODERADOS ANTE LA CRISIS DEL VIH/SIDA, A PRINCIPIOS DE LOS NOVENTA SURGEN LOS PRIMEROS GRUPOS QUEER EN EL CONTEXTO ESTATAL DE LA MANO DE LA RADICAL GAI (1991) Y DE LSD (1993).



DESDE EL PRINCIPIO DE LOS FRENTE DE LIBERACIÓN HOMOSEXUAL LAS PERSONAS TRANS HAN ESTADO PRESENTES EN LAS ORGANIZACIONES POLÍTICAS Y LUCHAS DE LAS DISIDENCIAS SEXUALES Y DE GÉNERO.

[AICA] 1993 GRANADA
ASOCIACIÓN DE IDENTIDAD DE GÉNERO DE ANDALUCÍA

¿Mujer o Trans?
La inserción de las Transsexuales en el movimiento feminista

Proyecto: Donde habite el olvido: relato gráfico de la disidencia sexual y de género en Andalucía. **Grupo de investigación:** Otras: Perspectivas feministas en investigación social. **Equipo:** Marta Candeias Luna (Investigadora Principal), María Alonso Vidal, María Espinosa Spinola, Victoria Fernández Sánchez, Blanca García Peral, Jesús Marín Torres, Diego Mendoza Albalat y MissComadres.

Resumen: Este proyecto "Donde habite el olvido: relato gráfico de la disidencia sexual y de género en Andalucía" tenía por objetivo contribuir a recuperar memorias y experiencias pasadas y presentes de las disidencias sexuales y de género andaluzas que, han sido "olvidadas" por la historiografía y han ocupado un lugar periférico en los relatos históricos oficiales. La elaboración del póster infográfico resultante "Vagas y Maleantas: una historia (incompleta) de activismos andaluzes" se construyó mediante formatos colaborativos y artísticos, lo que permitió cuidar, conservar y difundir a todo tipo de público las memorias y experiencias, muchas veces invisibilizadas, de quienes desde tiempos muy difíciles lucharon por la libertad de ser, sentir y amar en nuestro contexto más cercano.